

Kontzeju

www.ohotzi.eus



Herriak Oharri



@herriakoharri



herriakoharri



herriakoharri

DEGIK

Oñaticoko Udal aldizkaria | 2016ko Martxoa | 259. zenbakia



50 URTE

Arrikruzeko lehoiaren hezurdura agertu zenetik




Herri galdeketa egingo da ekainaren 12an

Erabakitzeko eskubidea praktikan jarriko da Debagoieneko herri guztietan eta Aramaion

“Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar? Bai/Ez”. Horixe izango da Erain Debagoiena ekimenak antolatuta, ekainaren 12ko herri galdeketa egingo den galdera. Debagoiengan edo Aramaion erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute. “Lorpenik handiena, ahalik eta parte hartzerik handiena lortzea izango da, ez emaitza” adierazi du Erain Debagoienak.

2013tik hona erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamika herritar sendoa sortzeko hainbat ekintza burutu dira Euskal Herrian ‘Gure Esku Dago’ren eskutik (giza-kateak, mosaikoak...) eta orain garai berri baterako urratsa eman nahi da. Erabakitzeko garaia heldu da, eta erabakitzeko eskubidearen ariketa



praktikoa gauzatu nahi da herri galdeketa baten bidez. Helburu horrekin sortu da Erain Debagoiena elkarte. Gure Esku Dago ekimenari jarraipena eman, eta ekainaren 12ko galdeketa antolatzeko.

Otsailaren 27an egin zen herri galdeketa arkezpen ekitaldia Arrasaten, Debagoieneko herri guztietako 150 bat ordezkariarekin. Orain 6.500 sinadura (Debagoieneko eta Aramaioko biztanleen %10) batu nahi dituzte, herri galdeketa zilegatasuna emateko.

Erain Debagoienak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu erabakitzeko eskubidearen hazia ereitera. “Denon bozka beharrezkoa baita etorkizuna elkarrekin eta demokratikoki erabakitzeko”, adierazi dute galdeketa sustatzaileek.

GALDERA

Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?

Bai/Ez

smk
san miquel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 ubai
www.sanmiquel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMAKAT S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 39 - liv.obarsari@gmail.com
www.egur-lan.es



Oñatiko aurkezpena martxoaren 12an egingo da

Herri galdeketa
babestu duen
Oñatiko
ordezkaritza

Ekainaren 12ko herri galdeketa aurkezpen ekitaldia egingo dute orain herriz herri. Oñatiko martxoaren 12an izango da, Santa Ana aretoan, eguerdiko 12etan. Orduerdiko saioa izango da. Bideo bat ikusi ondoren Erain-Debagoienaren agiria irakurriko dute eta, amaitzeko, galdeketa aldeko sinadura bilketari ekingo zaio. Mokadutxo bat hartzeko aukera ere egongo da.

SAN MARTIN GUNEAN

**GARAJEAK eta
ETXEBIZITZAK**

SALGAI

PROMOZIO BERRIA 2,3 eta 4 logela 169.235€ -tik !!



MOJASORO S.L. | Informazioa: 689 420 761 | Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net

50 urte

Arrikruzeko lehoiaren hezurdura agertu zenetik

Argazkia: Borja Abarrategi

URTE BEREZIA ARRIKRUTZEN

Arrikruz-Oñatiko kobetan urte berezia dugu aurtengoa, leize-lehoiaren hezurdura aurkitu zeneko 50.urteurrena betetzen baita. Urteurrenaren harira hainbat ekintza antolatuko dira urtean zehar. Euskal Herriko koben elkarteak antolatzen duen Koben Egunarekin hasiko dira ospakizunak, 2016ko koben eguneko prentsaurrekoa Arrikruzten egingo baita, martxoaren 10ean. Gero, martxoaren 12an, lehoiaren hezurdura aurkitu zuen Iñaki Zubeldiaren ahotik 1966an izandako bizipenak zuzenean entzuteko aukera egongo da. Bestalde, martxoaren 13an Koben Eguna ospatuko da, eta urtero bezela, Lurpea osatzen duten kobazuloetako sarrerak erdi prezioan izango dira, eta parte hartzaileen artean Karrantzan asteburuko egonaldi bat zozketatuko da.

» **Martxoaren 12an Koben Eguna ospatuko da, eta Arrikruzeko sarrera erdi prezioan egongo da**

» **Apirilaren 16an bisita gidatu berezia egingo da (mugatua) leize-lehoia agertu zen aztarnategira**

LEIZE-LEHOIAREN AZTARNATEGIRA BISITA apirilak 16

Apirilaren 16an bisitaldi berezia egingo da leize-lehoiaren hezurdura aurkitu zuten galeriara. Hala, Koben Egunean (martxoak 13) Arrikruz-Oñatiko kobetara hurbiltzen diren bisitari guztiek lehoia aurkitu zeneko txokora propio apirilean antolatuko den bisitarako zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Aztarnategi hau bisitariarentzat egokituriko gunetik haratago dago eta Arrikruz-Oñatiko kobetako ondare paleontologiko garrantzitsuenetako bat da. Apirilaren 16rako antolatutako bisita aditu batek gidatua izango da eta gehienez 10 lagunendako tokia egongo da.

LEIZE-LEHOIA (*Panthera Leo Spelaea*)



Leize-lehoia (*Panthera leo spelaea*) Europan orain dela 370.000 urte agertu eta orain dela 10.000 urterarte bizi izan zen lehoi mota dugu. Gaur egungo Afrikako lehoia baino handiagoa izango zela pentsatzen da. Gehienetan lehoi mota honen eskeleto zatiak aurkitu izan badira ere, Arrikruzten 1966an aurkituriko hezurdura osorik zegoen. Hortan datza batipat Arrikruz-Oñatiko kobetako leize-lehoiaren garrantzia, penintsulan aurkitu izan den bakarra delako eta Europa osoan ere kasu gutxi aurkitzen baitira.

» **Penintsula osoan osorik agertu den leize-lehoiaren hezurdura bakarra da Arrikruzkoa**

2016ko KOBEN EGUNA / Martxoak 12-13

MARTXOAK 10, OSTEKUNA (11:30): Koben Egunaren aurkezpen prentsaurrekoa Arrikruz-Oñatiko kobetan.

MARTXOAK 12, LARUNBATA (16:00): Arrikruz-Oñatiko kobetan bisita berezia Iñaki Zubeldiarekin. 1966an Javier Marotorekin batera lehoia aurkitu zuteneko bizipenak kontatuko ditu.

MARTXOAK 13, IGANDEA (KOBEN EGUNA): Egun osoan zehar Arrikruz-Oñatiko kobazuloetako bisita gidatua erdi prezioan. Bisitetako parte-hartzaileen artean Karrantzan asteburuko egonaldi baten zozketa. Gainera, apirilaren 16an egingo den bisita berezirako zozketan parte hartzeko aukera izango dute.

APIRILAK 16, LARUNBATA (10:00): Bisita berezia leize-lehoia agertu zeneko aztarnategira. 10 laguneko taldea izango da eta azalpenak aditu baten eskutik jasoko dira.

IÑAKI ZUBELDIA / Arrikrutzeko lehoiaren hezurdura aurkitu zuen

“Hartz baten hezurdura zela pentsatu nuen hasieran”

Arantzazun ikasten ari zela, Iñaki Zubeldiak (Ikaztegieta, 1945) eta bere ikaskide Javier Maroto Valladolideko lagunak aurkitu zuten Arrikrutzeko lehoiaren hezurdura 1966an. Zubeldiak ez du sekula ahaztuko egun hura, kobazuloko irteera aurkitu ezinik, gau osoa eman behar izan zutelako bertan, ilunetan, ikaratuta, harik eta fraideek antolatutako espedizio batek aurkitu zituen arte. Orduko bizipenak berriro ditu gurekin.

Zerk eraman zintuen egun hartan Arrikrutzera?

Ostegun, larunbat eta igandetan hiru orduko denbora librea izaten genuen, eta sarri joaten ginen leize-zulora, baina kobazuloaren erdiraino, ‘Sala de las Maravillas’ ingurura bakarrik iristen ginen. Eta planoetan ikusten zen aurrerago bazela ‘Sala Aranzadi’ izeneko gela haundi bat, eta haraino iristeko asmoz, 6 orduko baimen berezia eskatu genuen egun hartan.

Oker ez banago, zuek egindako antortxak eramaten zenituzten koba barruan ikusteko, ezta?

Elizan sobratzen ziren kandela muturrak batu, txapazko pote batean urtu, eta periodikotan batuta prestatzen genituen antortxak. Bakoitzak ordu bete irauten zuen gutxi gora behera, eta egun horretarako 16 eraman genituen.

“ Elizan sobratzen ziren kandela muturrez egindako antortxekin sartzen ginen

“ Ia hamabi ordu eman genituen galduta kobazulo barruan. Haluzinazioak ere izan genituen. Hango iluntasuna, hango isiltasuna... Izugarria da. Jan egiten zaitu.

Hagin bat bidali nion Jesus Altunari eta berehala konturatu zen aurkikuntzaren garrantziaz. Inori ezer ez esateko eskatu zidan.



Aurkitu al zenuten Aranzadi Gela?

Bai. Kontua da, *Sala de las Maravillas* galeriatik aurrera putzu sakon batzuk daudela, eta gure obsesioa zen horietan ez erortzea. Horregatik, bide guztian behera begira joan ginen, eta, hala, 100 metro dituen Aranzadi gela oso-oso zeharkatu genuen, bertan ginela konturatu barik.

Salaren bukaeran orma handi eta zabal bat dago, eta orduan

konturatu ginen Aranzadi gelan geundela; baina hura salaren bukerak zen, eta ez hasiera, guk uste genuen bezala, eta horrek despistatu gintuen.

Eta non aurkitu zenuten lehoiaren hezurdura?

Aranzadi gelako ormatzar hura inguratu eta handik laistera, ustekabean, planoetan agertzen ez zen galeria bat aurkitu genuen. Nola edo hala bertara sartu, eta bi gelatxo zeuden, bat bestearen azpian. Behekoan aurkitu genuen hezurdura.

Euskal Herriko leize-zuloetan ezaguna zen hartzaren (*Ursus spelaeus*) hezurdura izango zela pentsatu genuen. Artean ez genekien aitzuloetako lehoirik bazenik ere.

Gero etorri ziren komeriak, irteera aurkitu ezinik.

Konturatu orduko arratsaldeko 6ak ziren, eta 8retarako koruan egon behar genuenez, irteera pentsatu genuen. Aranzadi gelako orma handira itzuli ginen, ustez irteerak handik behar zuelakoan, baina alperrik. Ezin irteera aurkitu.

Gure ikaskideek bazekiten hara joanak ginela eta, beraz, lehenago edo beranduago bila etorriko ziren itxaropena bage-nuen, baina, hala ere, oso une gogorak pasa genituen. Hango iluntasuna, hango isiltasuna! Izugarria da. Jan egiten zaitu. Angustia eta estres handia pasa genuen. Haluzinazioak ere izan genituen; kamioiak entzuten genituen, ardiak... Ia hamabi ordu eman genituen horrela. Eternoa izan zen. Zorionez, goizeko 5,30ak aldera gure ikaskide baten adar-soinua entzun genuen eta hori izan zen salbazioa.

Nola jakin zenuen aurkitutako hezurdura lehoiarena zela?

Lo pittin bat egin orduko, egun horretan bertan eguerdirako Arantzazuko liburutegira joan nintzen. Han bazen “*Esqueletos de animales prehistóricos*” izeneko liburu bat, eta berehala kontura-

(hurrengo orrira)



tu nintzen guk ikusitakoa ez zela hartza. Beraz, ikaskideei azaldu eta handik bi astera-edo berriro itzuli ginen, hezurdura zegoen lekura. Hagin bat kendu eta Aranzadira bidali nuen, eta Jesus Altunak berehala deitu zidan aurkikuntzaren garrantzia azpimarratuz eta isilean gordetzeko eskatuz. Penintsula iberikoan aurkitzen zen lehen eskeleto osoa zen, eta hirugarrena Europan.

Altunarekin berarekin atera genuen hezurdura osoa hiru igandetan, hezur guztiak zorrotz katalogatu ondoren.

Iñaki Zubeldia, kamisetarik gabe erdian, Idiazabalgo lagun talde batekin Arrikruzera egindako bisitaldi batean, 1970eko hamarkadan



PROTAGONISTAK

Arrikruzeko lehoiaren hezurduraz ari garelarik, hiru izen azpimarratu behar ditugu, ezinbestean. Alde batetik, Iñaki Zubeldia eta Jesus Maroto, azken hau Valladolidekoa. 1966an Arantzazun ikasten ari ziren, eta beraiek aurkitu zuten hezurdura. Orduz geroztik, Zubeldiak bereziki, lan handia egin izan du Arrikruzeko ondarea balioan jarri eta ezagutzera ematen. Besteak beste, 'Leize-zuloko misterioa' izeneko haur eta gazteentzako nobela idatzi zuen, 1966ko bizipenetan oinarrituta.

Jesus Altuna (Berastegi, 1932) arkeologo, paleoantropologo eta arkeozoologoa ere aipatu behar dugu jakina. Euskal Herrian ez ezik, Europan aitzindaria izan da arkeozoologian, eta bere gidaritzapean egin zen Arrikruzeko hezurduraren azterketa. "Garai hartan jende gazte asko etortzen zen gure laborategira kobazuloetan aurkitutako aztarnekin. Batzuk baliotsuak, gehienak baliogabeak. Arantzazutik iritsitako hura ere ohiko beste hartz-haginen bat izango zela pentsatu nuen hasieran, baina hura izan ustekabea eta poza, lehoi batena zela ikustean eta hezurdura osoa zegoela jakitean. Berehala antolatu genuen bisita eta erreskatea" adierazi digu Altunak.



Goian, Javier Maroto eta Iñaki Zubeldia, lehoiaren hezurdura aurkitu zutenak. Eskuman, Jesus Altuna, ikerketa egin zuen Aranzadiko zientzialaria



Oineko tratamendu osoa

KAILUAK ONDDOAK AZAZKALAK
PAPILOMAK GOGORGUNEAK

Neurrira egindako silikonak

Oineko miaketa, plantilak

Podóloga

Marta Frances Barbero
Colegiada N° 1131890314

644 136 419
 Kale Zaharra N° 5 beh. esk. OÑATI
 martafrancespodologa@gmail.com



Epeleko isurtegiaren ikuspegia

300.000 tona hondakin gehiago jasotzeko edukiera du Epelek

Gipuzkoako hondakinak bertara ekarrita, hiru urtetan beteko litzateke

Puri-purian dugu berriz ere hondakinen gaia. Gipuzkoan sortzen ditugun hondakinekin zer egin? Herrialde osoko hiri-hondakinak Epelera ekartzea aztertzen ari omen da Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa (GHK) zenbait komunikabidetan zabaldu denez. Debagoieneko mankomunitateko hondakinen kudeaketarako batzordeko buru Lander Arregirekin hitz egin dugu honi buruz.

Eskualdeko enpresetako hondakinak isurtzen dira gaur egun Epelen. Hondakin geldoak dira, inerteak, arriskurik gabeak. Une honetan 300.000 tona hondakin jasotzeko edukiera du eta, beraz, gaurko isurketen erritmoan 2025 edo 2026. urtera arteko bizia izango luke. “Azken urte hauetan asko jeitsi da Epelera isurtzen den hondakin bolu-
mena” azaldu digu Lander



Egun eskualdeko enpresetako hondakin geldoak biltzen dira Epelen

Arregik. “Batetik, aktibitatea jeitsi delako, eraikuntza arloan batez ere, eta bestetik, enpresek gero eta hondakin gutxiago sortzeko joera dutelako”. Hala, 2008an 200.000 tona inguru isuri baziren, gaur egun urtean 54.000 tona isurtzen dira.

HIRI HONDAKINAK

Gipuzkoako hiri hondakinak Epelera ekartzeko aukerari buruz, GHK-k ez omen du eskaera ofizialik egin oraingoz. Hala ere, mankomunitatean azterketa batzuk egiten ari direla onartu du Arregik, “azterketa orokorra”.

“Kontua da, Epelen hiri-hondakinak jaso behar baditu-
(hurrengo orrira)

gu, azpiegitura batzuk behar ditugula. Alde batetik isolatu egin beharko litzateke eta nik uste dut araztegi bat ere eraiki beharko litzatekeela lixibiatuak tratatzeko; edo, bestela, Epelen dagoen araztegia erabiltzeko aukera aztertu beharko litzateke. Eta, edozein modutan, horrek kostu bat daukua, eta kontuan hartuz Epelen 300 mila tona hondakin gehiago bakarrik jaso daitezkeela, baloratu egin beharko da bideragarria den ala ez”.

Epeleko isurtegia handitzeko aukerarik dagoen ere ez daki Arregik. “Ez dugu planteatu ere egin. Aztertu egin beharko litzateke zigilatuta dauden beheko geruzak behar bezala egonkortuta dauden ala ez, goian hondakin gehiago hartu ahal izateko”. Azterketa horiek guztiak egin gabe daude, eta gero erabaki politikoa hartu beharko litzateke.”Mankomunitateak ez dauka oraindik posizionamendu ofizialik. Garbi dago GHK-k nahiago lukeela hondakinak hona ekarri, Kantabriara eraman barik, baina aztertu egin behar da tekniko-ki eta politikoki”.

EGOERA BEREZIA

Bere iritzi pertsonala ere eman digu Arregik. “Nire ustez logikoena da guk sortutako hondakinak geuk kudeatzea, inora bidaltzen ibili barik. Bestela, arazoa beste batzuei pasatzen ibiliko gara. Kontua da, Gipuzkoako egoera oso berezia dela, eta ez garela gai gure hondakinak kudeatzeko; gure arteko ezadostasunek ekarri gaituzte goera honetara, eta aztertu egin beharko genuke



LANDER ARREGI / Debagoieneko hondakinen kudeaketarako batzordeko burua

zergatik”.

Hori guztia kontuan hartuz, eta teknikoki bideragarria dela ikusten bada, Epele izan liteke elementu aprobetxagarri bat. Kokapen aldetik ez da txarra, autopistatik gertu dago, eta ez litzateke obra handirik egin beharko. Baina, esan bezala, azterketa tekniko horiek egin gabe daude oraindik”.

Kontuan hartuz GHK-k hitzarmena sinatu duela Meruelorekin (Kantabria) urtean 50.000 tona hondakin eramateko, Gipuzkoan 110.000 tona inguru geratuko lirateke, eta horiek Epelera ekarri gero, hiru bat urterako irtenbidea izango litzateke.

Debagoiena izanik Gipuzkoan gehien birziklatzen duen eskualdea, herrialde osoko hiri-hondakinak (nahastuta) gure eskualdean isurtzea bidezkoa



EPELEN HIRI HONDAKINAK JASO BEHAR BADITUGU, AZPIEGITURA BATZUK BEHARKO DITUGU, ETA BALORATU EGIN BEHARKO DUGU BIDERAGARRIA DEN ALA EZ, EDUKIERA (300.000 TONA) KONTUAN HARTUZ

den ere galdetu diogu Arregiri. “Garbi dago, datuak hor daude, Debagoienean urrats handiak eman ditugula, beste eskualde batzuetan eman ez dituztenak. Baina historikoki begiratuta, ezin dugu ahaztu, urte askotan zehar geuk ere kanpora (Lapatx, Sasieta...) eraman ditugula gure hondakinak. Beraz, uste dut oreka bilatu behar dugula eta baldintza batzuk jarri behar ditugula Gipuzkoan arazo honi irtenbidea emateko.

TARIFAK GORA

Urte hasierarekin batera GHK-k %20ko igoera aplikatu die mankomunitateei hondakinak tratatzeagatik tarifa. Hala, orain arte 157 euro ordaintzen zuten tonako, eta hemendik aurrera 173 ordaindu beharko dute.

Bestalde, organikoa bereizita



SAN MARTINEN
1. fasea martxan

italde
Ramon Irizar kalea 2
T. 943 78 27 07
www.italde.com

%81 GAIKA OÑATIN

Mankomunitateak eskuratu dizkigun iazko datuen arabera, Oñatin hiri hondakinen %81,38 jasotzen dugu bereiztuta. Hala, urte osoan 4,3 tona hondakin sortu genituen (390 kilo biztanleko) eta 3,5 tona batu genituen gaika. Beraz, 820 mila kilo errefusa sortu genuen (73 kilo biztanleko).

Oñatin eta Debagoienean batzen den bio-hondakina (organikoa) Funesera eta Caparrosora eramaten da. Bestalde, eskualdean sortzen dugun errefusa, Gipuzkoako gainerakoa bezala, Meruelora (Cantabria) bidaltzen da. Bereiztuta batutako hondakinak dagokien tratamendu plantara bidaltzen dira.

jasotzeagatik aplikatzen den hobaria ere %50etik %35era jeitsi da Debagoieneko kasuan. Beraz, nabarmen igo da gure mankomunitateak GHKri ordaindu beharreko tarifa. Hala ere, aurten behintzat herritarrok ez omen dugu igoera horren eraginik nabaritu behar. Arregik azaldu digunez, "Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan 5. edukiontzia jarriko dugunez, kostua jeitsi egingo zaio mankomunitateari eta horrek konpentsatu egingo dira, neurri handian, GHK-ren tarifa igoera. Urte amaieran aztertu beharko dugu diru kontuak nola dauden, eta horren arabera erabakiko dugu datorren urtera begira udalei igoerarik aplikatu behar zaien ala ez. Baina aurten ez".



Epeleko konpostaje planta udan jarriko dute martxan

Gauzak ondo bidean, uda partean hasiko da jardun betean GHKk Epelen eraiki duen konpostaje planta. Eraikina bera amaituta dago, baina arlo teknologikoa (sistema informatikoa, kontrolerako gailuak, filtroak, aireztapen eta depurazio sistemak...) ondo daudela egiaztatzeko probak egiten ari dira azken asteotan, obra amaitutzat eman baino lehen.

Gero, konpostaje plantaren kudeaketaz arduratuko den enpresa pribatua kontratatzeke deialdia egingo du GHKk, eta, esan bezala, uda parterako jardun betean hasia espero dute.

Epeleko konpostaje plantak urtean 10.000 tona bio-hondakin tratatzeko gaitasuna du, denborak, temperatura eta hezetasuna kontrolatzeko sistema automatizatu baten bidez. Produkzio gunean zortzi hangar edo tunel ditu eta bertan lau astez tratatuko da material organikoa. Gero, beste bost astez heltze gunean egongo da, eta, azkenik, konpostaren tamaina egokia bermatuko duen kribadora batetik igaroko da.

Konpostaje plantaz gain, Debagoienean batzen den errefusarentzako transferentzia estazioa, eta kamioientzako garbiketa gunea ere egokitu dituzte planta berrian.





MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa • Informazioa • Salmenta 	<ul style="list-style-type: none"> • Haziendarekin • Trafikorekin • Herentziak, eta abar
---	---

Kale Barria, 42 beheia • Tel.: 943 78 03 87 • email: inkorta@telefon.es

martxoak 8

Emakume langilearen nazioarteko eguna



Hemen dugu aurten ere martxoaren 8a, emakumeen eskubideen alde mguimendu feministak urteetan egindako lana gogoratu, eta gaur egun ere oraindik gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak (gizartean, lan munduan, ekonomian, politikan...) salatzeko. Udaleko Berdintasun sailak, Oñatiko Sare Feministak (Andraitz eta Pototak) eta Elkar Hezi ikastetxeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte martxoaren 8aren harira.

EGITARAUA

▶ MARTXOAK 4, OSTIRALA

18:00 **Sortzintxikan**. Oñatiko Sare Feministak antolatuta, Foru enparantza. Herriko espazio publikoa hartuz, aldarrikapenez jantzitako emakumeen eskubideen aldeko martxa herrikoia. Edonork parte har dezake, atxintxika, patinetean, oinez, bizikletan, ibilgailu elektrikoan... Animatu!



▶ MARTXOAK 8, ASTEARTEA

18:00 **Elkarretaratzea** plazan. Sare Feministak deituta.

▶ MARTXOAK 10, OSTEGUNA

18:00 **'Berdin eta desberdin mila ipuin'** Familientzako ipuin kontaketa saioa Haur Liburutegian (5 urtetik gorako haurrentzat) **Badut** taldearen eskutik
20:00 **Zine kluba**: 'Grandma' (AEB, 2015) Kultur etxean.

▶ MARTXOAK 12, OSTIRALA

10:00-14:00 **Emakume Artisauen Azoka**, foru enparantzan, Sare Feministak antolatuta.
14:30 Emakume **Bazkaria**, Antixena gaztetxean. Sare Feministak antolatuta. Txartelak salgai Ona, Oñati eta Iturritxon 12€tan (langabetuak 8€).
19:00 Kontzertua gaztetxean 'Puro Luego' taldearekin.

▶ MARTXOAK 16, ASTEAZKENA

18:30 **'Alice Munro: idazle ikusezina'**. Irakurle talde irekia udal liburutegian, Danele Sarrugartek eta Nagore Tolosak gidatuta.

19:00 **Dokumentala**: *Dantzan: logros feministas por el derecho a decidir*. Ondoren **mahai-ingurua**: 'Mugimendu feministak Euskal Herrian eta munduan emakumeon giza eskubideak aldarrikatzen'. Hizlari gonbidatuak: **Rebeka Maestro** (Oñatiko Sare Feminista), **Anabel Sanz** (Feminis Taldea) eta **Joana Etzano** (Mugarik Gabe GKE). Euskaldun Barria gelan (Bidebarrieta 18, euskaltegiaren ondoan).



▶ MARTXOAK 18, OSTIRALA

18:00 **Antzerkia**: 'Zer duzu Amy?' antzezlan, 'Oh My God' taldearen eskutik, Elkar Heziko ikasleek antolatuta. Amy Winehusen ahotsa eta talentua izan nahiko lukeen Dasy izeneko neska (Leire Ucha) da protagonista. Irrika, frustrazioa eta bizitzaren borrokaren inguruko obra da, puntu gazi-gozoak eta umorea uztartzen dituena.



🗨️ Martxoaren 8ak jatorrian zeukan zentzua berreskuratu behar genuke”



‘**MARTXOAK 8**’aren harira antolatutako ekitaldien artean, mahai-ingurua egongo da hilaren 16an, eta Oñatiko Sare Feministako Rebeka Maestro izango da hizlarietako bat.


Martxoaren 8aren jatorrizko zentzua berreskuratu behar dugula uste du Rebekak. “Adierazpen politiko eta instituzional asko egiten dira, jende asko batzen da ekimenetan, eta hori ondo dago, baina arrisku bat ere badago nire ustez, ematen baitu emakumeen aldeko omenaldi desideologizatua bilatzen dela”. ‘Langile’ hitza desagertu eta ‘Emakumearen Eguna’ izatera pasa izana ere “esanguratsua da”.

Rebekaren ustez klase kontzientzia eta aldarrikapen politiko inportantea duen eguna da martxoaren 8a. “Gizarte kanpialista honetan generoa zapalkuntzaren ardatz bat dela salatu behar dugu, hortik datozkigulako emakumeoi ezberdintasun sozial estrukturalak”. Ekonomia feministak lagundu du ikusarazten gaurko jendartearen erdigunean kapitala dagoela; “lan produktiboa bakarrik baloratzen da eta emakumeok ordainik gabeko lan erreproduktiboa egin behar izaten dugu askotan”.

Abortatzeko eskubideen alde Oñatin egin den lanaz hitz egingo du bere hitzaldian Rebekak, batez ere orain dela 20 eta 30 urteko emakumeek, beste baldintza sozial eta ideologikoetan egindako lana azpimarratuz.

‘CURRICULUM VITAE’ kale-erakusketa, Elkar Heziren eskutik

Asunción Molinos artistaren ‘Curriculum Vitae’ artelanean oinarritutako erakusketa aterako dute kalera Elkar Heziko ikasleek martxoaren 11tik 21era. Publizitatea eta mikro-matxismoa gai hartuta, generoaren inguruko estereotipoak landuko dituzte. Hala, publizitate kanpaina bat egingo dute ikasleek, Oñatiko hainbat emakumeren eguneroko lana azpimarratuz.



BAGATOZ MARTXO(S)AK 8

Emakume langileon nazioarteko borroka eta elkartasun eguna

Urteetako helburuei jarraiki, herriko Emakume ezberdinekin elkarlanean **Martxoak 8**ko egitaraua antolatu dugu. Izan ere, aldarrikapen eta elkartasun egun honek ez du gertaera bakar batean bere jatorria. Baina bere beharra ulertzeko, munduko Gizon gehienek historikoki bizi izan duten testuinguruekin alderatzea nahitaezkoa da; lan ordainduaren eskubide eza, ikasketetarako eskubide eza, sexu eta sexualitate askatasun eza, lan baldintza kaskarrak, botoa emateko eskubide eza, eskumen ekonomiko eza, familiako kideen zaintzaren erabateko ardura, Indarkeria Sexista espazio pribatu eta publikoan...

Gaur egun gauzak ez direnez asko aldatu, mundu mailan Emakumeak Antolatuta jarraitzen dugu, Emakumeon Mundu Martxa-n saretuta gaude. Hala eta guztiz ere, gure herrian Feminismo hitzak sortzen duen ezezagutza dela eta, herriko Emakumeengana gerturatzea erabaki dugu; elkar-ulermena eragiteko asmotan. Berdintasunean bizi garela sinistarazten digute, baina...

- 4 Behartsuetatik 3 Emakumeak dira.
- Indarkeria Matxistak haur, neskatila eta emakumeak Erailtzen ditu.
- Hegoaldeko Herrialdeen lur eremuen ustiapena medio, beraien bizi proiektua baztertu eta Mendebaldeko herrialdeetara migratzen dute Emakume askok. Zaintza lanak burutzera, askotan esklabutza lan baldintza gogorretan.
- Emakumeek historikoki eginiko lorpenak eta ekarpenak, oso balio txikia dute.
- Emakume-aren sinbolo diren gorputz guztiek, indarkeria sexista pairatzen dute, direnagatik eta irudikatzen dutenagatik; murrizketak, kontrolak eta hainbat indarkeria molde eta maila.
- Indarkeria Matxistaren hainbat molde instituzionalizatuk, Fobien bidez adierazten dira; trans gorputzei (transfobia), nahiz sexu-maitasunezko aukera lesbikoari (lesbofobia) eta homosexuali (homofobia).
- Munduko aberastasunaren %1 bakarrik dago emakumeen esku.
- Gorputzarekin ze gertatzen da? gurea da? edo Gizonena?
- Sexu langileak diren Emakumeak ikustezinak dira Jendartean, ez zaie galdetzen, ez eta entzuten.
- Egungo sistema Ekonomikoa mantentze aldera, Jendarteak behar dituzten produktoreak, ugaltzen dituzte Emakumeak. Jendarteak ze trataera ematen die Emakume hauei?
- Femenitateari atxikitutako baloreak ez dute errekonozimendurik; elkartasuna, malgutasuna, lankidetzeta, sentiberatasuna, empatia, zainketa...
- Edonon erabiltzen da Hizkuntza Sexista; Emakumeak ikustezin bihurtuz.

Beraz, Martxoaren 8an, Feminista aitzindarien borrokak gogoratu, aintzat hartu, balioa eman eta Feminismo-arekiko konpromisoa berresten dugu. Borrokarako grina datozen belaunaldi berriei transmititzeko eguna da, gaur egun dauzkagun eskubide minimoak dohainik iritsi ez zaizkigula ikusarazteko, Emakumeak Protagonista izan dituen borroka adoretuari eskerrak emateko

**EMAKUMEON ASKATASUNIK GABE EZ DAGO HERRI ASKERIK!!
BATU FEMINISMORA!!**



Eskolako Bidean Bagabiltz!



Oñatiko ikastetxeek eta Udaleko Hezkuntza sailak elkarlanean Eskolako Bidea proiektuan aurten izango diren erronkak aurkeztu dizkiote herriari jendaurrean martxoaren 2an. Eskolarako joan-etorrietan mugikortasun jasangarria, osasuntsua eta segurua sustatzen da Eskolako Bidean. 2015-2016 ikasturteko lehen ekintzak argazki lehiaketa eta ikasleen mugikortasunari buruzko inkesta izan dira.

Ikasturte honetan bigarren urtez jarri da martxan *Eskolako Bidea* proiektua. Mugikortasun ohiturak aldatzea da proiektuaren helburua, eta bide horretan egin beharreko pausoak Oñatiko ikasleen hausnarketatik abiatzea da Udalaren asmoa. Izan ere, ume eta gazteei protagonismo handiagoa emanda eta euren esateko dutena entzunda, gizarte osoan eragiteko erabakiak hartu daitezke.

Ume eta gazteen iritzia jasotzeko ekimen birekin hasi da aurten *Eskolako Bidea*. Batetik, ikasleei zuzendutako argazki lehiaketa antolatu da, argazkien bidez eskola edo instituturako bidea nola ikusten duten islatzeko. Eskolako bidean, *zer gustatzen zait? zer ez?* da lehiaketaren izenburua, eta jasotako argazki guztiak kultur etxeko erakusketa gelan ikusgai egongo dira martxoaren 14tik 18ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Bestetik, mugikortasunaren eta autonomiaren inguruko inkesta ere erantzun dute Oñatiko ume eta gazteek. Jasotako emaitzak esanguratsuak dira.



Bagabiltz

> OÑATIN BAGABILTZ' LOGOA

Oñatin hainbat eragile dabil lanean, mugikortasun jasangarria, osasuntsua eta segurua sustatzeko helburuarekin. Ekimen horien guztien ikusgarritasuna bultzatzeko, logotipo bateratu bat, marka bat, sortu da. Bagabiltz leloa erabilita, irudiarekin mezu baikor bat transmititu nahi da. Logotipoaren bidez, adierazi nahi da eragileak lanean eta mugimenduan daudela, eta herritarrei parte hartzeri gonbidatzen zaiela. Irudi hau Oñatiko edozein eragile erabili ahal izango du, mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzeko ekimenetan; esaterako, ikastetxeek, guraso elkarteek edo herriko edozein elkarteek.

MAPFRE
Oñati

Parriko kalea, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia

Oñatin Oñatiarron zerbitzura!

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

IKASLEAK NOLA MUGITZEN DIREN


Inkestak erakutsi du *Eskolako Bideak* lortu nahi dituen helburuak lortzeko abiapuntua nahiko ona dela. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 62 oinez, patinetez edo bizikletaz joaten da eskolara; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, %88. Joan-etorri horiek modu ez motorizatuan egitea baloratu, mantendu eta sustatu behar da.

Nesken eta mutilen arteko erantzunetan aldea nabari da. Neskak mutilak baino gehiagotan joaten dira oinez, eta mutilek, aldiz, gehiagotan erabiltzen dute bizikleta edo patinetea. Nerabeen artean, oso zabaldua dago mutilek bizikleta erabiltzea, eta neskek berriz, oso gutxi erabiltzen dute; gehienbat oinez egiten dituzte joan-etorriak.

Inkesta honen bidez, Lehen Hezkuntzako umeek joan-etorrietan duten autonomia ere aztertu da. Haurren erdia inguru -% 51,6- helduren baten laguntzarekin joaten da eskolara. Laugarren mailatik aurrera, nabarmena da haurrek hartzen duten autonomia. Izan ere, gehienak -% 72tik gorabakarrak edo ikaskideekin mugitzen dira.


Autonomia kontutan, ba al dago alderik Lehen Hezkuntzako nesken eta mutilen artean? Badirudi baietz. Helduek neskak laguntzeko joaera handiagoa dago: nesken % 57 joaten da helduren batek lagunduta, eta mutilen erdiak esan du nagusien laguntzarekin joaten dela eskolara.

MUGIKORTASUNA LEHEN HEZKUNTZAN (%)



NESKAK


OINEZ: %53,48
KOTXEZ: %33,19
AUTOBUSEZ: %8,41
PATINETEZ: %3,19
BIZIKLETAZ: %1,74



MUTILAK


OINEZ: %46,91
KOTXEZ: %32,60
AUTOBUSEZ: %3,35
PATINETEZ: %9,66
BIZIKLETAZ: %7,47

AUTONOMIA LEHEN HEZKUNTZAN (%)



NESKAK

HELDUEKIN: %57,62
LAGUNEKIN: %29,30
BAKARRIK: %13,08



MUTILAK

HELDUEKIN: %50,60
LAGUNEKIN: %33,06
BAKARRIK: %16,33

ERAKUSKETA

martxoak 14 - 18

Eskolako bidean zer gustatzen zait? Zer ez? lehiaketan jasotako argazki guztiak martxoaren 14tik 18ra kultur etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIAN KONPONKETAK
PERFORAK, LUBRIKAK, LUBRIKATZAILAK, ARGIAK, PINTURAK, LAMIK...



BIDEHEZKUNTZAKO YTH MANTENZAJUEKIA

BIZIKLETAK, BARRIKAK eta KANONZ GELINDA

BILAKUA 12 B 4 era. - 20090 ONATI - GIPUZKOA

095 78 91 04 - 943 04 47 77



(1) 70 urte onatzen

LIKIDAZIOA

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak
- Parket laminatuak



Euzkadi Etxetidea 2 • Onati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 00



T.A.O.

sistema ezarriko du Udalak Kalegoiena eta Kiroldegiko parkinetan martxoaren 7tik aurrera

» Aparkatu ondoren txartela atera beharko dugu, matrikula zenbakia eta denbora adieraziz, eta dagokion tarifa ordaindu. » Udaltzaingoa egingo du kontrol lana.

Hainbeste arazo eman dituzten barrerak kendu eta TAO/OTA bidezko sistema jarriko du Udalak Kalegoiena eta Kiroldegiko lurpeko parkin publikoetan. Martxoaren 7an sartuko da indarrean.

Orain arteko sistemarekin, parkina uzterakoan ordaindu behar izaten genuen, egindako denboraren arabera. Orain berriz, kotxea aparkatzen dugunean ordaindu beharko dugu. Horixe da aldaketa nagusia funtzionamenduari dagokionez. Hau da, autoa aparkatu ondoren, txartela atera beharko dugu parkimetroan. Kotxearen matrikula zenbakia teklatu, zenbat denborarako behar dugun adierazi, eta horren

TARIFAK
ORAIN ARTEKO
BERBERAK
IZANGO DIRA.
AURRENEKO
BI ORDUAK
DOHAINIK
IZANGO DIRA

araberako tarifa ordaindu beharko dugu. Gero, txartela kotxean utzi beharko dugu, agintemahiaren gainean, leku agirian, udaltzainek kontrola egin ahal izateko.

Ordaintzeko sistema aldatzen bada ere, tarifak mantendu egingo dira orain arte bezala. Hala, lehenengo bi orduak doan izango dira. Bigarren ordutik bosgarren ordura bitartean 2 zentimo minutuko, eta bosgarren ordutik aurrera 3 zentimo minutuko. Hamaikagarren ordutik aurrera (24 orduko mugarekin) 15 euro ordaindu beharko da.

Gogoratu, parkinak erabiltzeko hileroko abonua bereziak ere badaudela aukeran.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbitzaileen elkartea

653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

06:00-24:00

KALEGOIENA

LEHENENGO-2 ORDU DOHAINIK
PRIMERAS 2 HORAS GRATIS

2. ORDUTIK 5. ORDURA 0,02 € MINUTUKO
DE 2 A 5 HORAS 0,02 € MINUTO

5. ORDUTIK 11:30 ORDURA 0,03 € MINUTUKO
DE 5 A 11:30 HORAS 0,03 € MINUTO

11:30 ORDUTIK 24 ORDURA 15 € GEHIENEZ
DE 11:30 HORAS A 24 HORAS 15 € MÁXIMO

2:30 ordu / horas 0,60 €	6:00 ordu / horas 5,40 €
3:00 ordu / horas 1,20 €	7:00 ordu / horas 7,20 €
3:30 ordu / horas 1,80 €	8:00 ordu / horas 9,00 €
4:00 ordu / horas 2,40 €	9:00 ordu / horas 10,80 €
4:30 ordu / horas 3,00 €	10:00 ordu / horas 12,60 €
5:00 ordu / horas 3,60 €	11:00 ordu / horas 14,40 €



Funtzionamendurako jarraibideak



ORDAINKETA

Kotxea aparkatu ondoren, txartela atera beharko dugu parkimetroan. Gure autoaren matrikula tekleatu, zenbat denbora erabiliko dugun adierazi, eta dagokion tarifa ordaindu beharko dugu. Lehenengo bi orduak dohainik izango dira, orain arte bezala. Esku-diruz edo txartel bidez ordaintzeko aukera egongo da. Gero, kotxean leku agerian utzi behar dugu txartela, udaltzaingoak kontrola egin ahal izateko.

ISUNAK

Txartela ez jartzeak edo denbora muga gainditzeak, 30€-ko isuna eragingo du. Isuna parkineko makinan bertan ordaintzeko aukera egongo da, egunean bertan, eta hortik aurrera udaletxean. Hogei egunen barruan ordainduz gero isuna 15€-tan geratuko da.

Aparkatzeko Abonuak *

» GAUEZ APARKATZEKO

Gauetz (21:00 - 09:00) aparkatzeagatik, 45€/hileko.

» EGUNEZ APARKATZEKO

Egunez (09:00-21:00) aparkatzeagatik, 45€/hileko

» GAU ETA EGUN APARKATZEKO

Egun osoan aparkatzeagatik, 80€/hileko

» LANDA EREMUKO BIZILAGUNENTZAKO ABONUA

Landa eremuan erroldatuta dauden herritarrek eskuratu ahal izango dute abonua hau. 15 euro (hileko) ordainduta, egunean 5 orduz jarraian aparkatzeko aukera izango dute.

(*) Abonu hauek udal bulegoetan eskatu behar dira.

30€-ko
isuna jasoko dugu
txarteleko denbora
muga gaindituz gero



EZKONTZETAN Etxe-Aundi

2015-2016 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



UDALEKO BATZORDEAK



Ongizatea

GIZARTE ZERBITZUAK

Marijo Etxegoien (EAJ), Lourdes Idoiaga (EAJ), Mikel Biain (EH Bildu), Susana Altuna (EH Bildu, batzordeko burua), Rafael Kortabarria (EH Bildu) eta Itxaro Leibar (Ongizateko teknikaria).

Ongizatea edo Gizarte Zerbitzuen saila da aurrekonturik handienetakoa (2,6 milioi euro) duen udal departamentua. Berak koordinatzen du, esate baterako, udalak datozen urteetan egingo duen inbertsiorik potoloenetakoa: San Martingo turoretzapeko etxebizitzak. Proiektu honen eta esku artean dituen beste batzuen berri eman digu Susana Altuna batzordeko buruak.

926 mila euroko inbertsioa egingo du udalak pertsona nagusientzako etxebizitza tutelatuak eraikitzeko San Martin egoitzaren ondoan. Zertan da proiektua?

San Martin egoitza eta Eguneko zentroaren ondoko lursailean eraikiko dugu etxebloke bat 16 apartamentu tutelatu-
rekin
(12

banaka-koak eta 4 dobleak). Dependentsia maila baxuko pertsona nagusientzat izango dira batez ere, irisgarritasun, segurtasun eta zaintza egoikiarekin.

Otsaileko osoko bilkuran hirigintza proiektua idazteko lehiaketa publikoa deitza onartu dugu. Dena ondo badoa, urte bukaeran obrak hasteko moduan egotea nahi dugu. Bertan bizitzen jarri ahal izateko bi urte beharko dira, behintzat.

San Martinen ditugun beste baliabide sozialekin (egoitza eta eguneko zentroa) sinergiak aprobetxatuta, gune sozio-sanitario inte-

grala izango dugu bertan.

Bestelako ostatu zerbitzu batzuk ere baditu Udalak gaur egun. Zeintzuk dira? Batetik, pertsona nagusiei zuzendutako babestutako lau etxebizitza dauzkagu Bidebarrieta kaleko 23an.

Bestalde, errenta baxuak dituzten pertsonentzako 11 etxebizitza sozial ditu Udalak; 7 Bidebarrietako 22-24an, eta bina Olabarrieta eta Zubillagan.

Larrialdi egoerei (suteak...) erantzuteko 'Harrera Etxe' bat daukagu, eta, bestalde, gizartetik baztertuta gertatzeko arriskuan dauden pert-

sonentzat Babestutako Etxebizitza bat egokitu dugu Errekalden, lau logelarekin.

Gizarte Zerbitzuetako aurrekontuaren zatirik handiena (630 mila euro) Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuak eramaten du. Zer da zerbitzu hau?

Adineko pertsonen edota elbarritasunen bat dutenei zuzendutako zerbitzua da. Beraien etxean bizitzen jarraitzeko laguntza bat da. Eskatzailearen beharren arabera, ordu kopuru jakin batean joaten zaio langile bat, etxeko lanetan laguntzera eta laguntza pertsonala ematera, eta onuradunaren errentaren arabera kostuaren portzentai bat ordaintzen du.

Zerbitzu honen aldeko apustu sendoa egiten du Udalak. Hala, gaur egun urtean 30.000 zerbitzu-ordu eskaintzen dira.



“ San Martin egoitzaren ondoan pertsona nagusientzako 16 apartamentu tutelatu eraikiko ditugu. Horixe izango da agintaldiko inbertsiorik potoloena Ongizate arloan

SUSANA ALTUNA | Ongizate batzordeburua



Hitzarmena adostu dugu Eulen enpresarekin, etexez-etxeko laguntza zerbitzuan ari diren langileen lan baldintzak hobetzeko

Gainera, azpimarratu nahi nuke, Eulen enpresak eta etxez-etxeko zerbitzuan ari diren langileek hitzarmena sinatu dutela lan baldintzak hobetzeko: soldatak, ordutegia, baimenak...

San Martin egoitzaren kudeaketa diputazioaren eskura pasatuko omen da laister. Nola eragingo digu horrek?

Gizarte Zerbitzuen legearen arabera, adineko pertsonen egoitzak eta eguneko zentroak foru aldundiaren kompetentzia dira. Horregatik, diputazioak Kabia erakunde autonomoa eratu zuen aurreko agintaldian, poliki

poliki egoitzen kudeaketa bere gain hartzeko.

Guk begi onez ikusten dugu egoitza guztiak erakunde batek kudeatzea, eta ez dut uste horrek eragin negatiborik izango duenik. Azken batean, gaur egun egoitzan dauden 75 plazak aldundiarekin kontzertatuta daude. Guk eskatu duguna da, San Martin egoitzako zuzendaritzak klaratarren elkartearen esku jarraitzea. Oinarritzak iruditzen zaigu.

Eguneko Zentrorako plaza gehiago eskatu zenuten. Onartu al du diputazioak?

Bai. Beste bost plaza onartu dizkigu aldundiak. Beraz, aurrerantzean 30 pertso-

nentzako lekua egongo da bertan. Albiste oso ona da, Oñatiko Eguneko zentroak oso ondo funtzionatzen duelako, eta jendea zain dagoelako bertan sartzeko.

Pobreziaren arloan 107 mila eruoko aurrekontua dauka udalak. Nola kudeatzen da? Larrialdietarako laguntza da hori, etxearen alokairua, mantenua edota norberaren beharrianetarako ematen dena, Jaurlaritzak markatzen dituen irizpideak jarraituz.

Azken urteotan jeitsi egin dira Jaurlaritzaren laguntzak kontzeptu honetan, eta guk aldiz, igo egin ditugu.

Gainera, Diru Sarreak Bermatzeko Errentak (DBE/RGI) Lanbideak tramatzen ditu.

Etorkinei begira 'Harrera Plana' prestatzen ari zarete. Zein helbururekin?

Gure herrira iristen diren etorkinen integrazioa bideratzea da helburua. Gaur

egun 700 bat dira Oñatin erroldatutako atzerritarrak eta, beraz, arduraz hartzeko gaia dela uste dugu, integrazio egokia lortzen badugu, denon onerako izango baita.

Gainera, udalak ez dauka dirulaguntza lerro berezirik etorkinentzat. Izan ditzaketen arazo sozialak bideratzen laguntzen diegu, baina, beste edozein herritarri bezalaxe.

Berria zaitugu zinegotzi lanetan. Zer nolako esperientzia izaten ari da?

Gustura ari naiz, ilusio eta gogo handiz, gauzak ahalik eta ondoen egin guran. Gainera, beharra daukan jendeari laguntzen diogunez, esker onekoa izaten da, eta horrek bete egiten zaitu.

Edozein modutan, azpimarratu egin nahi dut Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten teknikarien lana; dedikazio eta konpromiso maila handiko langileak dira, eta asko errazten dute gure lana.



LOURDES IDOYAGA / EAJko ordezkaria Ongizate batzordean

EAJk 2010ean gordetako diruarekin eraikiko dira San Martingo hamasei etxebizitza tutelatuak

San Martingo etxe tutela-tuena izango da agintaldi honetako inbertsio inportanteena ongizate mailan. Neurri batean, proiektua EAJrena ere badela diozue.

Bai. EAJren udal gobernuak 2010ean hartutako erabaki estrategiko baten ondorioa da. San Martingo etxebizitzaren promoziotik Udalak 'Eraikuntza zerga' kontzeptuan jasotako diru kopurua (%10eko aprobetxamendua) gizarte zerbitzuetako etxebizitzak eraikitzeke destinatzea erabaki zuen eta gorde egin zuen. Oraingo udal gobernuak etxe tutelatu eta komunitarioak martxan jarriko ditu,

menpekotasunik gabeko pertsona nagusientzat batez ere. Inbertsio inportantea da.

Aurtengo aurrekontuei begira Bonu Sozialak martxan jartzea proposatu duzue, baina gobernu taldeak ez du onartu.

Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden pertsonen zuzendutako bonu sozialak proposatu ditugu. Pertsona edo familia hauek dituzten lehen mailako beharrei eta gastuei (argindarra, ura, janaria, garraio publikoa, formazio ikastaroak...) aurre egiten laguntzea zen helburua.

Badaude esprirentziak beste

herri batzuetan. Onuradunak dira, batez ere, pentsiodun alargunak, familia-kargak dituzten gazteak, prestaziorik gabeko langabetuak... Gobernu taldeak ez du onartu baina lantzen jarraituko dugu.

Zuen programan, besteak beste, 'Denbora bankua' sortzea proposatzen duzue. Zertan datza?

Trebetasun ezberdinak dituzten pertsonen arteko zerbitzu trukea da. Zerbitzua ez da diruz ordaintzen, denborarekin baizik.

Era askotako zerbitzuak izan daitezke: informatika eskolak,

gazte ekintzaileei laguntzea, pertsona nagusiei konpañia egitea... Boluntarioria eta gizarte harremanak sustatzeko modu bat da, eta giza kapital inportantea sortzen da.

Gainera, zein dira agintaldiko egitasmo nagusiak?

'Pertsona Helburu' da EAJren leloa eta gure konpromisoa da gizarte zerbitzuen sarea hobetzen jarraitzea. Arreta berezia jarriko dugu menpekotasun edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonengan, genero indarkeriaren ondorioetan, etorkinen integrazioan, pobrezian... Oso aktiboak izango gara enpleguaren sorrera bultzatzen eta kontratazio publikoetan klausula sozialen aplikazioan.

Hondakinen bulegoko zerbitzua udaletxean emango da martxoaren 7tik aurrera

Udaletxeko harreran emango da zerbitzua, astelenetik ostiralera (15:00-20:00)

Kale Zaharrean zegoen Hondakinen Informazio Bulegoa itxi egin du Udalak, eta aurrerantzean udaletxeko harreran eskainiko du zerbitzua. Beraz, galdutako edo apurtutako ontzien aldaketak udaletxeko harreran egingo dira aurrerantzean. Olio batzeko poteak ere bertan eskuratu ahal izango ditugu. Astelegun guztietan (asteleheneretik ostiralera) emango da zerbitzua arratsalde, 15:00etatik 20:00etara.

Bestalde, hondakinen bilketa sistemaren inguruko beste edozein inzidentzia helarazteko honako telefonoa eta helbidea erabil daitezke:

943 50 47 21 / hondakinak@debagoiena.eus.



Konpost egileei eskerrik asko

Igandeko Zuhaitz Egunean auzokonpost guneetatik ateratako konposta erabili zuten lurra aberasteko eta zuhaitzen hazkuntzan laguntzeko. Beraz, eskerrik asko konpost egile guztiei.



San Martinen libre dauden 14 ortuak esleitzeko deialdia egin du Udalak

San Martingo baratza parkean libre dauden hamalau ortuak esleitzeko deialdia egin du Udalak. Ortua eskuratu ahal izateko Oñatin erroldatuta egon behar da, eta eskatzailea adin txikikoa bada, gurasoek edo tutoreak abalatu beharko du. Martxoaren 7ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko udal bulegoetan. Izena ematen dutenen artean zozketa bidez esleituko dira. Lagapena urtebeterako izango da, eta ortuen onuradunek 70 euroko kuota ordaindu beharko dute urteko errenta kontzeptuan.

Banandu edo alargundu ondoren, umeen kargu egiteko baliabiderik ez duten emakumeentzako laguntza deialdia

Aurreko bi urteetan bezala, arrazoi ezberdinengatik (banaketa, dibortzioa, alarguntzea...) beraien familia unitatea hautsi eta seme-alaben kargu egiteko nahikoa baliabide ez duten emakumeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Eskatzaile bakoitzaren egoera sozio-ekonomikoa aztertuta finkatzen da dirulaguntzaren zenbatekoa, eta dirua itzuli behar duen ala ez. Laguntza jaso ahal izateko Oñatin erroldatuta egon behar da, gutxienez 12 hilabetez.

Gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntza deialdia

16.000 euro banatuko ditu aurten Udalak gizarte zerbitzuen arloan Oñatin edota eskualdean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarten artean. Martxoaren 18ra arteko epea dago eskaerak egiteko.

Atzeko Kale oinezkoentzat egokitzeko lanak lizitaziora atera ditu Udalak

Atzeko Kalea oinezkoentzat egokitzeko II. faseko lanak lizitaziora atera ditu udalak. LKSk idatzitako proiektuaren arabera, 346 mila euroko aurrekontua dute lanek (BEZ kanpo), ur hornidura eta saneamendu sareak beritzeko lanak barne. Hiru hilabete eta erdiako epea dago lanak burutzeko.

Bidebarrieta 24ko hiru etxebizitza sozial errentan emateko deialdia egin du Udalak

Bidebarrieta 24ko 2D, 2B eta 3C etxebizitzak errentan emateko deialdia egin du Udalak. Parte hartu ahal izateko Oñatin erroldatuta egon behar da azken bost urteetan. Deialdia aldizkari ofizialean argitaratu ondoren zabalduko da eskerak aurkezteko epea. Informazioa gizarte zerbitzuetan (943037700).

ANE MERTZERIA

- Josteko zarak
- Lantzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 51 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Txurruka
tabernako
arkupeetan
hasi dira
berritze
lanak

Foruen enparantzako arkupeetako zoladura berrituko du Udalak

Plazako arkupeetako irisgarritasuna hobetzeko asmoz, zenbait gunetan apurtuta edo oso gastatuta dauden harri losak konpontzea erabaki du Udalak. Harrien arteko junturak berritu, egoera txarrean daudenak konpondu edo aldatu, eta harrien arteko mailak berdinduko dira, besteak beste.

Martxoan hasiko dira lanak, eta faseka egingo dituzte. Aurreneko fasean Foruen enparantzako 5-6 zenbakien aurrealdean (Txurrukako arkupea) berrituko da zoladura. Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu lanak. Hiru arkupeetako zoladura berritzeko lanek 46.700 eurko aurrekontua dute (BEZ kanpo). Lan guztiak aurten bertan egitea da Udalaren asmoa.

Kale garbiketa zerbitzua berriro lehiaketa publikora ateratzea proposatu du EAJk

Baldintza plegu zorrotz baten baitan, kale garbiketa zerbitzua berriro ere lehiaketa publikora ateratzea proposatu du EAJren udal taldeak. Udalak zerbitzua bere gain hartu ordez (gobernu taldeak egin asmo duena), kalitate irizpide teknikoak eta lan baldintzak jasoko dituen baldintza plegu zorrotz batekin zerbitzua lehiaketa bidez esleitzea proposatu dute jeltzaleek. Modu horretan, kalitatezko zerbitzua ez ezik, gaur egun FCCrentzat diharduten langileen lanpostuak eta lan eskubideak berrmatuko lirakeela dio EAJk.

Su detektagailuak jartzeko deialdia

80 urtetik gorako herritarren etxeetan, edo gazteagoak izanda ere, menpekotasun edo bakardade egoeran bizi diren gizon-emakumeen etxeetan su detektagailuak instalatzeko deialdia egin du Udalak. Instalazioaren eta ondorengo mantenuaren kostua Udalak hartzen du bere gain. Interesatuak udalako gizarte zerbitzuetan (Bidebarrieta 12-943037700) egin behar dute eskaera.

Arkauz zure etxea da.

GRUPO **ARKAUZ**

ARETXABAETA 1950-2016 ARRASATE

65 urte baino gehiago

KUDEAKETA EREDUA adostu dute Eltzian

ETEOko eraikin zaharreen gorpuzten ari den Eltzia proiektuak urrats inportantea eman du. Bertan parte hartzen ari diren 19 taldeek gestio eredia adostu dute, autoeraketa mailan aurrerapausoa emanaz. Eguneroko jardunaz arduratuko diren lau lantalde (*Koordinadora, Garbiketa eta Mantenua, Komunikazioa eta Ekintzak*) eratu dituzte, eta erabaki estrategikoak asanbladan hartuko dituzte, denen artean.

Honenbestez, Eltzia proiektua adostu eta diseinatzeko faseak koordinatu dituen Bagara Herrigintza taldeak amaitutzat eman du bere lana. Hemendik aurrera, udaleko Partaidetza teknikaria izango da Eltzekideen eta udalaren arteko bitartekari lanak egingo dituena. Urtean bizpahiru bilera egingo dituzte zinegotziekin, helburuak finkatu eta jarraipena egiteko. Udalak eraikinaren gastu orokorrak (ura, argindarra...) eta mantenimendukoak hartuko ditu bere gain.

ORAIN OBRAK

Kudeaketa eredia adostuta, eraikina Eltzia proiektuaren beharretara egokitzeko obrak egingo dira orain, Izaskun Legaristi arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera.

ETEO zaharreko lehenengo eta bigarren solairuetan egin-



Onintza Guridi (Bagara Herrigintza), Onintza Andrés (Partaidetza teknikaria) eta Nerea Zubia (zinegotzia)

go da aktuazio nagusia. Hala, lehenengo solairuan Eltzia proiektuaren bihotza izango den topaleku zabal (230m²) eta argitsua egokituko da, eta gaur egun sotoan dagoen taberna ere solairu honetan kokatuko da.

Taberna berriaren kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleituko du Udalak, Nerea Zubia zinegotziak argitu zuenez.

Obrarekin jarraituz, Gorputz Eltzia taldeentzako (Oñatz, Irazan, Txantxiki...) aretoetan zoru biguna jarriko dute, eta beste hainbat espazio multifuntzional ere (tailerrak, bilera gelak, biltegiak...) egokituko dira, moldagarriak beti ere, gaur egungo Eltzekideen eta etorkizunean izan daitezkeen kide berrien beharretara egokitzeko.

Obrak esleitzeko plegua prestatzen ari da orain Udala, eta uda parterako esleipena eginda eta lanak hasteko moduan egotea espero dute, Zubiak azaldu zuenez. "Urte amaierarako lanak amaituta edo amaitzear egotea espero dugu". Lanek 425.000 euroko aurrekontua dute. Hirugarren solairua ez da ikutuko, oraingoz eta obrak dirauen artean bertan kokatuko dira Eltzekideak.

'MUSIKA ELTZIA' AMAITZEAR

Bienbitartean, Eltzia behe solairu edo sotoan, herriko musika taldeentzako lokalak (Musika Eltzia) prestatzen ari da Udala, eta ia amaitzear daude lanak. Behar bezala intsonorizatutako 11 lokal egokitu dituzte bertan, sarrera propioa dutenak, zamaketa lanak errazteko. Lokaletako bat handiagoa da (35m²) Trikitxaranga edo Batukada Feminista bezalako taldeek erabiltzeko. Gainerako hamar lokalak txixxeagoak dira (60m²) eta gaur egun Errekalden eta beste garaje batzuetan dabiltzan 33 musika taldek erabiliko dituzte. Hile honen amaierarako lokalak funtzionamenduan egotea espero dute. Udalak 267 mila euro (BEZ kanpo) inbertitu ditu Musika Eltzia aurreneko fase honetan. Aurrerago, grabazio estudio txiki bat egokitzeko proiektua ere badago.

Lana edo obra egun baten egiten da informatu zaiten konpromiso gabe!

Izaneko
ISOLAMENDU TERMIKO ECOLOGIKOAK

Zubillaga Industrialdea 75
T: 637 304 574
mailto:informazioa@izaneko.com
www.izaneko.com

'Oñatiko Euskeria'

interneten ikugai

'www.oñati.eus' udalaren webgunean eskegi dute
Berba taldeak 2014an argitaratutako liburua



Argitaratu zenetik urte eta erdi igaro denean, 'Oñatiko euskeria: ezagutu, aztartu, egin' liburua udalaren webgunean (www.oñati.eus/udal-zerbitzuak/euskaltegia/argitalpenak) zintzilikatzea erabaki du udaleko Euskara sailak, egileen oniritziarekin, edozein pertsonak ikusi eta kontsultatu ahal izateko moduan.

2014ko ekainean argitaratu zen liburuak oso harrera ona izan du. Aurreneko 500 aleak berehala agortu ziren eta bigarren edizio bat ere (300 ale) atera behar izan zuten. Liburu fisikoa nahi duenak herriko liburutegietan edo udal euskaltegian eskura dezake 18 eurotan.

Baina hemendik aurrera, esan bezala, sarean egongo da liburua, 2014ko argitalpenari egindako zuzenketa eta guzti. Liburua bera ez ezik, liburuarekin batera argitaratu zen DVDean agertzen diren Oñatiko hiztunen testigantzak ere ikusi ahal izango ditugu udalaren webgunean.

Liburuarekin lotutako edota Oñatiko euskararen inguruko ekarpenen bat egin nahi duenak www.oñati.eus/eu/tramiteak/galdetu-udalari estekaren bidez egin ahal izango ditu.

HAMABOST URTEKO LANA

Berba taldeko kideek hamabost bat urtez egindako lanaren fruitua da liburua. Aurretik oñatieraz eta Oñatiko euskarari buruz idatzi eta argitaratutako lanak aztertu, eta hainbat herritar elkarrizketatu ondoren osatutako lan mardula.

Hiru atal nagusi ditu liburuak. Lehenengoan gramatika arloa dago (aditza, deklinabidea, sintaxia...). Bigarren zatian, Oñatiko euskararen hiztegia, esaera zaharrak eta esapideak daude jasota. Azken atalean, Oñatiko euskeran idazteko arao edo argibideak aurkituko ditugu.

OÑATIERAZ IDATZITAKO LEHEN TESTUAK

'Oñatiko Euskeria' liburuaz gain, oñatierari buruzko beste hainbat dokumentu interesgarri ere aurkituko ditugu www.oñati.eus webgunean. Interesgarrienak, duda barik, Manuel Umerez 'Goribargoitia'k 1805 inguruan idatzitako bi liburuak dira, orain arte ezagutzen diren oñatierazko lehen testu idatziak, eta Jerardo Elortzak transkribatu dituenak, herritar guztien eskura jartzeko.



BERBA taldeko

Roberto Altuna,
Kepa Elortza eta
Koldo Zumalde
idatzi zuten
'Oñatiko Euskeria'
liburua

IRTEERA ZUBEROAKO MASKARADETARA

Apirilaren 10ean, Udal Euskaltegiak antolatuta

Udal Euskaltegiak Zuberoako Maskarada bertatik bertara ezagutzeko irteera antolatu du. Apirilaren 10ean izango da irteera, Sohüta herriko Hoki auzora. Mauletik 10 kilometrora dago Sohüta, eta Zuberoako bigarren herririk populatuena da.

Goizeko 8:00etan irtengo da autobusa Oñatitik, eta gaueko 22:00ak aldera itzuliko. Prezioa: 12€ (ikasle eta langabetuek 8€). Horrez gain, nahi dutenek Hokiko herri bazkarian bazkaltzeko aukera izango dute 15€ren truke. Menua: entsalada, haragia (ahate gerarekin* axuria edo behikia), lursagarrak, gasna bixkotxa, kafea eta ondokoa. (* Ahate gera/hera: ahate parapurdina (*molleja de pato*)).

Txartelak Txokolateixan eta Euskaltegian egongo dira salgai apirilaren 4ra arte. Euskaltegiko kideek herritar guztiak gonbidatzen dituzte egun polit bat igaro eta, bide batez, Euskal Herriko ohitura eta tradizioak ezagutzera.



Zuberoako Sohüta herrira izango da irteera

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Borja Abarrategi

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Agur Bomag

Arantxa Egoskozabal -Lezuri Ormazabal

2012ko abenduan Bomag aldizkariaren lehen alea kaleratu genuen eta hiru urte beranduago agur esateko ordua iritsi zaigu. Dakizuenez, Bomagen helburua Oñatiko komertzio eta zerbitzuek gure herriko eguneroko bizitzan duten garrantzia azaltzea eta beraien eskaintza zabaltea izan da. Espero dugu neurri txiki batean ez bada ere, helburu hori lortu izana.

Gaur egun, krisiak, azalera handiko zentroek eta internet bidezko erosketek komertzio txikien etorkizuna arriskuan jarri dute. Hala ere, gure herriko denda eta zerbitzuek, diruarekin ordaindu ezin daitezkeen hainbat gauza eskaintzen dizkigute, gertutasuna, aholkularitza, konfiantza, bertako produktuak, eta abar luze bat. Horrez gain, Oñatiko denda eta zerbitzuek bizia ematen diete gure herriko kaleei. Imaginatu dezakezue denda, taberna edo ile-apaindegia gabeko Oñati bat?

Agur labur honetan Bomag aldizkarian sinistu duzuen guztiei eta bertan parte hartu duzuen guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Mila esker guztioi eta gogoratu, “Bizi Oñatin, Oñatin erosiz!”

PNV-ko agintarien negozioak aztertzen

Ander Lizarralde

Euskadi irratan eta euskal telebistako albistegietan isilarazten denaren berri izateko asmoarekin,

martxoak 16an, asteazkenean, arratsaldeko 18:00retan, Igor Meltxorren ‘Gestión a la vasca; Chringitos, impunidad y soberbia’ liburua aztertuko dugu Antixenako gaztetxean

Gauza bat dira PNV-ren botanteak eta beste gauza bat dira PNV-n hariak mugitzen dituzten agintariak. Azken horien ibilerak azaltzen ditu liburuak. PNV-ko agintariak eta euren inguruko dirudunek, aberatsek, enpresariak, konstruktoreak eta burgesak dirutzak irabazteko egiten dituzten maniobrak eta erabiltzen dituzten trinkimailuak eta irregularidadeak azaltzen dira bertan.

Herri galdeketa ekainaren 12an

Euxebi Osa eta Felipe Uriarte, Oñatiko Gure Esku Dagoren izenean

Aukera bikaina dugu etorkizunak herritarren esku egon behar dela aldarrikatzeko. Nola ez dugu, bada, gure estatus politikoaren antolaketa parte hartu nahiko! Teorikoki, Estatuek –eta era bateko edo besteko egitura administratiboek–, herritarrek euren egunerokoa hobetzeko egiturak izan behar dituzte; herritarrek beraien ongizatea bermatzeko sortutako tresna da Estatua. Herritarren erabakiaren gainetik ezin da, beraz, Estatua ipini.

Debagoienean ERAIN ekimenak antolatuko duen herri galdeketa herritarrei eman nahi die hitza. Goierriin, Azpeitian, Diman eta Bakaikun bezala, debagoiendarrok, oñatiarrok barne, erabakiaren arora igarotzera goaz. Ardura hartu nahi dugu, zutoi-

nak zein zorutan jaso nahi ditugun aukeratzeko. Ariketa bikaina dator kigu, zilegitasuna herritarren borondatearekin lortuko baitugu. Borondateak dakar zilegitasuna, eta ez da legerik herri borondatearen gainetik; borondatearen berme behar du legeak, ez borondatearentzako oztopo.

Gugandik gertu, horrela adierazia eta bere jardunaz erakutsia du, adibidez, Kataluniako gizartearen zati handi batek, eta are gehiago, baita Erresuma Batuko gobernuak berak ere, zeinek egungo harreman-eredua ezbaian jartzeko aukera eta tresna eman dien eskoziarrei –haiek hala erreklamatu–; Erresuma Batuek konponbide eraginkorra eman zion planteatzen zen “arazoari”, eta egoera egonkorra bizi dute gai horri dagokionez.

Baina ez bateko ez besteko bideak ez ziratekeen jorratuko herritarren borondatearekin ezean. Horregatik, herri galdeketa bat Oñatin, Debagoienean eta Euskal Herrian. Hasi gaitzen bidea egiten herririk herri, bailaraz bailara, erabakitzen; erabakitzen, ekaineko herri galdeketa izango direlako bihar-ko erabakiaren hazia; borondatea delako gakoa. Izan gaitzen protagonista, etorkizuna guztion artean erabaki dezagun!

BATZOKIAREN AURKAKO ERASOA SALATU DU EAJ-K

Otsailaren 20an jasandako erasoak salatu du Oñatiko EAJK. 'Kortxoenea, Ezpala... PNV gaztetxeen etsai' zioen pintada agertu zen Batzokiko horman, eta, gainera, sarreran animalien gorotzak utzi zituzten erasogileek. Belaunaldi berriek biolentzia barneratuta dutela ikustea larritzekoa dela dio jeltzaleen idatziak, bizikidetzaren inguruan ezker abertzalearen munduak pedagogia behar handia duela gaineratuz. Errespetuan oinarritutako bizikidetzaren baten aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du EAJK.



Oharrak, deialdiak eta azken ordukoak

EUSKALTEGIKO MATRIKULA - ZOZKETAREN IRABAZLEA

Euskaltegiko ikasleen artean ikasturteko matrikularen kostuari dagokion diru-saria zozketatu ohi du urtero Udalak. Aurten Gorka Lopez de Ocariz Trepiana izan da. Argazkian dago bera saria jasotzen (183 Txantxi) Euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik.



EHIZA TXAPELKETA

Martxoaren 20an jokatu da Oñatiko ehiza txapelketa Zambranaren. Alzu-n eman behar da izena hilaren 18a baino lehen. Prezioa: 15€.

STARTinnoVA LEHIAKETAN SARITUAK

Elkar Hezi ikastetxeko 16-17 urteko ikasleen lau taldek gazteen ekintzailetasuna sustatzea helburu duen STARTinnoVA lehiaketan parte hartu dute, eta horietako hiru finalista izan dira, Gipuzkoa mailan parte hartu duten 88 talderen artean. Betarurrekoak pertsonalizatzeko sistema, eko-boligrafoak eta funtzio bikoitzeko mikrouhin labeen proiektuak aurkeztu dituzte.

ALOÑAKO ZUHAITZ EGUNA

Aloñako Lagunak taldeak antolatutako zuhaitz eguna martxoaren 20an izango da. Parte hartu nahi dutenek eman izena Fernando Maiztegiren tailerrean edo aloinalagunak@gmail.com helbidean

HILEKO IRUDIA

Argazkia: Sergio Gil



Otsailaren 20an jokatu den Munduko kopako Suediako rallyko irudiak..

GILTZARRIAK JADA EZ DIRA HAIN GILTZARRI

Erregai fosilen inguruan unibertitatean egindako lan batek ondorio larriak jarri dizkigu agerian, eta lerro hauen bitartez partekatu nahi ditut, errealitatearen isla izan eta autokritika sakona egitera gonbidatuz.

Lan hau egiten hasi aurretik, hauxe zen energia niretzat: mugikorrak kargatu edo autoan ibiltzeko beharrezkoa den hori, gure mundu perfektua are hobea egiten duen baliabide liluragarria besterik ez. Nire ignorantzia barnerraturik nengoen, kezkarik gabe. Nondik zetorren, zer zen, eraginik ba al zuen... bigarren mailako kontuak, azken finean, gizakiak gara, ohituak gaude, zertarako piztu alarma?

Kimikako lan apal bat baino gehiago izan dut proiektu txiki hau; errealitatera zertxobait hurbildu eta berau ulertzeko

Xabier Urbina



ahalegina. Gasolindegira joan eta bat-batean zetorren erregai horren eta bere anai-arreben inguruko galderen interpretazioa, alegia. Nondik datozen, zer diren, nola aurkitu eta lortzen diren, erabilera...

Erregai fosilak, hasiera, eta are garrantzitsuagoa, amaiera duten energia iturriak landu ditut, eta era berean, energia iturri ez-berriztagarri horien sorrera, tratamendua eta eraginak aztertu.

Esan beharra daukat, erregai fosilen inguruan daukadan ikuspegia are txarragoa dela proiektu txiki honen ostean. Petrolioak, gas naturalak eta ikatzak sortzen duten menpekotasun ekonomiko, sozial eta energetikoa izugarria da. Mundu honen oinarri diren hiru erregai horiek sortzen duten gizarte desberdintasuna, eta nola ez, hondakinak, bene-

tan kezkarriak direlarik.

Gaur egun kontsumitzen dugun energiaren ia %80 erregai fosiletan du iturria. Hondamendia gertu dugu, ezbehar naturalak eta bizimodu honen amaiera ate joka izanik. Gutxi batzuen interesa bermatzeagatik gaude arrisku horien guztien amildegian erortzeko puntuan.

Arazo honen aurrean aukera bakarria ikusten dut; energia berriztagarrien ezarpen ezinbestekoa, errealitatearen aldaketa behar beharrezkoa delarik. Ohitura eta sistema energetikoaren iraultza, eta era berean, gobernu eta erakunde ezberdinen aldetik gizartea kontzientziatzeko bultzada. Gasolindegira joan eta petrolioia erabili beharrean, iturri berdea eta garbia duen batetik datorren erregai baten erabilpena besterik ez dut ikusten irtenbide.

Energia berriztagarrietan dago gure etorkizun duina, gure gatazka honen konponbidea. Bultza ditzagun, errealitatean ezarritu eta munduarekiko errespetuz jokatzu.



DEITORATZEN DUGU 2.0

Jone Arrazola



Garai berriekin amesten dugun arren eta biolentziaz betetako urteak atzean utzi ditugula pentsatzen dugun arren, larritzekoa da, belaunaldi berriek jasaten dugun biolentzia. Biolentzia baita, ez bakarrik norbait erailteza edo bahitzea, biolentzia da baita ere guztion ondasunak kaltetzea, beldurtzeko intentzioarekin. Azken hamarkadan Kasablanka, Kukutza III, Kortxoenea eta Ezpala Gaztetxeek erasoak jasan dituzte. Azken kasuetan ez dira bakarrik aurretiazko abisu gabe gazteak desalojatzera mugatu, gainera eraikina lurrarekin parekatu dute,

bertan erresistentzia burutu zuten gazteak atxilotuz, hauen kontrako salaketak jarri eta Ertzaintzaren bortizkeria jasalaraziz. EAJren munduak oraindik pedagogia behar handia dauka bakea eta bizikidetzaren inguruan. Tamalgarria da, oraindik ere horrelakoak gertatzea eta Euskal Herriko gazteok irmo jarraituko dugu, orain arte bezala, herri honentzako lanean, eskubideak zapaltzen zaizkigun kolektibo guztien interesak defendatzen eta guztion arteko bizikidetzaren alde lanean. Gu isilarazi nahi gaituztenek ez dute beraien helburua beteko, garai gogo-

rangoetan ere aritutakoak gara eta. Azken hamarkadetan gertatutakoak ez da gazteoi eragiten digun zerbait soilik, herri osoaren bizikidetzari eragiten dio eta horregatik da gainera tamalgarriagoa. Euskal herritar guztion arteko bizikidetzaren bakea, denontzako da onuragarria, ez gazteontzako bakarrik. Beraz, gaztedia erasotzen duten horiek, euskal herritarren elkarbizitza erasotzen dute(...)Errespetua da beraz eskatzen duguna, EAJren munduak hausnar dezala nora garamatza horrelako ekintzen bidez gure kultura ezberdin sentitu, pentsatu, ekin eta eragiten dugunon aurka egiteak. Gaztetxeetatik herri burujabe baten alde lanean jarraituko dugu, gure ideiak defendatuz, beldur barik eta errespetuan oinarritutako bizikidetzaren aldeko gure apustua berretsiz.

Udalekuak 2016

> Urtero bezala, aurtengo uztailean ere, eskaintza ezberdinak proposatuko ditu Oñatiko udalak. Besteak beste, Udaleku Irekiak eta Arte udalekuak izango ditugu.

> Udaleku irekiak:

Lagunartean Oñatiko txoko ezberdinak ezagutzuz eta euskaraz, gozatzeko aukera eskaintzen dugu. Uraren eguna, eskulanak, jolasak, San Ferminak, kanpaldia, etab. egiteko aukera izango dute haurrek. Betiere, ahal den neurrian, beraien nahi eta gogoetara egokituz.

Iaz bezala Oñatiko Gaztelekua izango da gure topaleku. Aurtengo berrikuntza nagusia haurren eskaera batetik dator, izan ere, udalekuetan izena emateko adina luzatuko da; 4 urtetik 12 urterarte (2004-2012an jaiotakoak). Bestalde, izena emateko modua ere erraztu dugu: ordainketa kontu ezberdinetan eta internet bidez egin ahal izango delako. Hona hemen beharrezko informazio guztia:

- NOIZ: Ekainaren 27tik uztailearen 22ra
- ORDUTEGIA: 10.00-13.00
- ADINA: 2004-2012an jaiotakoak (biak barne)
- TOKIA: Gaztelekuan
- MATRIKULA: 70€
- IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 7tik martxoaren 18ra (biak barne)
- IZENA EMATEKO MODUA: Behin ordainketa eginda, ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak beteta, Udaletxera (9.00-14.00) edota Txaloka ludotekara (16.45-19.45) eramán beharko da.
- ZAINITZA ZERBITZUA: 8.15-10.00 bitartean Gaztelekuan (50€). Behin Udalekuetan parte hartuko duten haurren kopuruak jakinda, Udalak, hezitzaileen kontratazioari ekingo dio, apirila aldera



> Arte udalekuak:

Aurten bosgarren aldiz Arte udalekuak izango ditugu udaldian. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute. Horretarako udalak bi monitore kontratatuko ditu.

- NOIZ: Ekainaren 27tik uztailearen 22ra
- ORDUTEGIA: 10.00-13.00
- ADINA: LH6, DBH1, DBH2 eta DBH3ko gazteak.
- TOKIA: Bidebarrietako eskulanean gelan
- MATRIKULA: Doan (plaza mugatuak, 15 gazte)
- IZENA EMATEKO EPEA: Izenematea maiatza bukaeran zabalduko da eta Gaztelekuan egingo da.



MARTXOAN...

[8] **EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA:** ekintzak plazan eta gaztelekuan. | **LUDETEKAN:** [12] LUDOIBILTARIA! Errementari plazan 10:30-12:30 sorkuntza eta jumpinga [21-22-23-29-30-31] LUDOTEKAKO EKINTZA BEREZIAK. | **KUBOAN:** [5] 3-4-5. mailakoen DISKOFESTA [12] BADMINTON txapelketa [19] ALTXORRAREN BILA 29 KIROL ARRATSALDEA kiroldegian. Aste Santuan: IRTEERA SORPRESA | **TOPALEKUAN:** [6] PARKOUR saio didaktikoa, Iñaki Lasagabasterrekin [12] KONTZERTUA: Lenao eta Zingira (22:30etan, sarrera 5€) [18] ARAZERIXAN! Amaiera festa.



ALEBINAK



KADETEAK



INFANTILAK



JUNIORRAK

Urrezko denboraldia

Aloña Mendiko Txirrindularitza sailak 50 urte betezen ditu aurten



Federazioaren oroigarria

Denboraldi berezia izango da aurtengoa Aloña Mendiko Txirrindularitza sailarentzat, 50 urte betetzen baititu. Urtarrilaren 30ean izan zen urte berezi honetako lehen ekitaldia, Gipuzkoako federazioak Oñatin egin baitzuen urteko batzar orokorra, baina otsailaren 20an eman zitzaion hasiera ofiziala, Aloña Mendik aurten errepidean jarriko dituen lau taldeen aurkezpenarekin. Kepa Umerez txirrindularitza saileko presidentek azaldu zuenez, Oñatiko txirrindularitzaren historia osoa bilduko duen liburu bat prestatzen ari dira, eta udazkenerako amaituta egotea espero dute. Horrez gain, aurten karrera berezi batzuk antolatuko dituzte 50. urteurrena ospatzeko; hala, apirilaren 24an Gipuzkoako Klasika jokatu da Oñatin, Euskal Herrian jokatu den Junior mailako lasterketarik inportanteena, eta Alebin nahiz Infantil mailako Gipuzkoako txapelketak ere Oñatin jokatu dira maiatzaren 7an. Horiez gain, erakusketa bat, bi hitzaldi, eta bazkari herrikoa ere egingo dira urtean zehar. Aurtengo denboraldiari dagokionez, lau talde (24 txirrindulari) izango ditu Aloña Mendik. Horiez gain, Julen Umerez eta Garazi Erostarbe *Ampo* eta *Caja Rural* taldeetan ariko dira.

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Hiru domina munduko sokatira txapelketan

Ione Elorza oñatiarrak hiru domina eskuratu ditu otsailaren 18tik 21era Volendam (Holanda) jokatu den klubaren eta nazioen arteko goma gaineko munduko sokatira txapelketan. Bere taldearekin (Gasteizko Badaiotz) zilarrezkoa lortu zuen 500 kilokoan, Txina-Taipeiren aurka finalean galduta. Euskadiko selekzioarekin brontzezko bi eskuratu zituen 500 eta 540 kilokoetan. Lehendik ere egona da Ione munduko txapelketan, baina aurtengoa berezi izan da, aurreneko aldiz lehiatu ahal izan baitute ofizilaki Euskadiko selekzio bezala, ikurriña podiumera jasoz.



Ione Elorza euskal selekzioaren tiraldietako batean



Aloña Mendi Trialtoi taldeko kideetako batzuk

Oñatiko 25. Duatloia jokatuko da martxoaren 12an

Distantzia motzeko Euskadiko txapelketa izango da

Berezia izango da aurtengo Oñatiko Duatloia. Euskadiko zirkuitoan 25 urtez jarraian antolatu den proba bakarra da, eta hori ospatzeko, Euskadiko Txapelketa izango da aurtengo distantzia motzean.

9 kilometro korrika, 36 bizikletan, eta 4,5 korrika. Horixe izango da lehiakideek egin beharko duten lana. Korrikako saioak, ohi bezala, herriko kaleetan barrena egingo dituzte, eta bizikletako partziala ere Oñatitik irten barik egingo da: Foru enparantzatik abiatuta, San Prudentzioraino joango dira lehiakideak, eta itzulerakoan Lamiategi-Arregiko aldapa gogorra igo beharko dute. Bi buelta eman beharko dizkiote 18 km.-ko zirkuitoari eta, beraz, korrikako sektorea ez ezik, bizikletakoa ere bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dugu. Kontuan izan, Oñati eta San Prudentzio arteko errepidea itxita egongo dela arratsaldeko 16:00ak eta 17:30ak artean.

ALOÑA MENDI BARRUAN

Aurtengo, gainera, etapa berri bati ekin dio Oñatiko Triatloi Taldeak, Aloña Mendi kirol elkartearen egituraren sartu baita. Ohiko funtzionamenduan ez du aldaketa handirik eragingo, baina aurrerantzean Aloña Mendiko sail berria izango da. Taldearen aurkezpen ekitaldia baliatuz, triatloi taldeak eskerrak eman dizkie Aloña Mendiri eta bi babesle nagusiei, Arrikruz-Oñatiko Kobak eta Caravanas Oñate.

Espainiako kros txapelketan 9. sailkatu da Aloña Mendi



Arg.: Carlos de Cos

Hirugarren urtez jarraian Espainiako kros txapelketan parte hartu du Aloña Mendik eta klubaren historiako emaitzarik onena lortu du aurtengo, 9. postuan sailkatuta. Imanol Cruz (36.) izan zen ordezkari onena; Yeray Varela 55. eta Sergio Garcia 70. helmugaratu ziren. Bestalde, Kadete mailako mutilen taldea 25. sailkatu zen. Gogoratu, bestalde, Yeray Varela 2. sailkatu zela otsailaren 14an Abadiñon jokatutako Euskadiko kros motzeko txapelketan.

Mendi irteera IZKI parkera

Aloña Mendiko Mendi sailak martxoaren 12an antolatu duen irteera Arabako Izki parke naturalean izango da, martxoaren 20an. Corres-en abiatuta, Soila (983m.) eta Muela (1045m.) mendiak igoko dituzte Corres-en amaitzeko ibilbide zirkularra. Danera 16km. eta 1000 m.-ko desnibela, 6 bat ordutan egitekoa. Ibilbideak ez du zailtasunik.

Irteera goizeko 8etan izango da. Izen-ematea, martxoaren 17ra arte, Aloña tabernan. Bazkideak 10€, ez bazkideak 13€ eta langabetuak 5€. Federatuta egon behar da.



Miren Errasti
soinua eta ahotsa
Agurtzane Mujika
ahotsa eta panderoa
Oier Kortabarría
bateria

**Ongi tabernan
eskura daiteke
diskoa
6 eurotan**

GU GEU (Miren Agur eta Oier)

*Souñu ta pandera
harturik eskutan,
jendea alaitzea
daukagu burutan,
behintzat saiatzen gera
gu ahalegin hortan,
umorea degula
azaldu asmotan!*

*Bi neska gazte gera
sasoiko ta fiñak,
ezin sosegatuak
festarako griñak,
egiñagatik zuek
zeuen ahalegiñak,
kosta baietz bilatzen
beste bi berdiñak!*

*Eta hirugarrena
mutiko prestua,
erdia pasa behintzat
da Araozkua,
hau nekatzea degu
ia eziñezkua,
festa zaletasuna
dauka berezkua!*

*Fandango, arin-arin
balts eta rantxerak,
pasodoble, bolero
eta habanerak,
aukeran dituzue
dantzarako erak,
guk apurtzen ditugu
egungo joerak!*

*Jotzen degu kalean
edota elizan,
berdin aretoetan
talde honen gisan,
entzule bazabiltza
festaren ehizan,
deitu iezaiguzue
dudarik ez izan!*

Testua: 'Lutxurdixo'

Hamabi urteko ibilbidea ospatzeko diskoa

Hamabi urteko ibilbidea ospatu eta urte hauetan bidelagun izan dituztenei eskerrak emateko diskoa plazaratu dute Miren, Agur eta Oierrek. Dozena bat urte igaro dira Mirenek eta Agurtzanek bidaia honi ekin ziotenetik, trikitixa eta panderoa hartuta, bazkari, afari eta auzo txikiak erromeriak girotuz. Handik pare bat urterea Gorka Maiztegi batu zitzaizen, bateriarekin, eta hirukote gisa aritu izan dira orduz geroztik, bazterrak alaitzen. Hiruzpalau urteren ondoren Gorkak utzi egin zuen taldea, eta Oierrek bete zuen bere lekua.

Urte hauetan zehar hainbat bidelagun izan dituzte, hala nola, Jaione Intxausti, Maixa Lizarribar, Harkaitz Allur, Iñaki Olalde, Eugenio Gisasola 'Lutxurdixo', Aitziber Otegi, eta Ezozi Soba. Beraiei eta etxeko, kuadrillako eta trikitixako lagun guztiei eskerrak emateko modu bat da diskoa.

Aipatutakoez gain, Iker Zubeldiak, Andoni Goitiak, Maider Osak, Iñigo Ugartek eta Aintzane Bergarak ere parte hartu dute diskoan, instrumentu ezberdinekoak (fandangoak, arin-arinak, rantxerak, baltsak, foxtrotak...), horietako batzuk diskorako propio sortuak. Iazko udan grabatu zuten diskoa, Oñatiko IZZU Grabaketak-en, Iban Idigoras eta Iñaki Zubiarekin.

Martxoaren 19an Azpeitiako Trikiti Jaialdian parte hartuko dute, baina apirila edo maiatzera arte ez dute erromeriarik joko, Mirenen amatasuna dela eta. Beraz, ordura arte diskoa entzun beharko dugu. Ekaina aldera, diskoaren aurkezpen jaialditxo bat antolatzeke asmotan dira.



caravanas **Oñate**

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zehazketa, 25 • Tel.: 943 71 63 50
www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zehazketa, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzoko kalea, 32 (erakusketa)






Brahms-en Requiem-a abestuko du Ganbara Abesbatzak

Erronka zalea da Oñatiko Ganbara Abesbatza, eta oraingoan beste erronka zail bat jarri dio bere buruari, Johannes Brahms (1833-1897) alemaniarren Requiem-a abestuko baitu, musika sinfoniko-koralaren obrarik inportanteenetako bat.

Ez da ohikoa izaten obra hau abesbatza amateurren errepertorioetan ikustea, eta, hain zuzen, Debagoiena eskualdean lehen aldiz entzun ahal izango da.

Abesbatza eta lau eskutako pianorako bertsioa abestuko du Ganbara Abesbatzak. Oñatiko ahotsek Arraaste eta Donostiako zenbait abeslari izango dituzte lagun. Klara Mendizabal (sopranoa) eta Ander Sumal (baritonoa) izango dira solistak, eta Eli Mendaraz eta Arantzazu Saiz pianujoleak. Guztira 45 musikari izango dira Aitor Biainen zuzendaritzapean.

Martxoaren 20an izango da kontzertua, San Migel parrokian, 19:00etan. Sarrerak (10€) Txokolateixan daude salgai.

'Zingira' ren lehen diskoa kalean

Martxoaren 12an aurkeztuko du Gaztelekuan



Iñigo Ibarrondok sortutako proiektu musikal berria da Zingira, eta bere aurreneko diskoa plazaratu du, 'Bidaia' izenekoa.

Sei kanta biltzen dituen lana da, Sharon Stoner taldeko abeslari eta baxu jotzailea izandako Iñigok berak auto-ekoiztua. Abestiak sortzeaz gain, berak grabatu ditu instrumento ia guztiak, eta baita nahastu ere, nahiz eta Sharon Stoner taldeko Egoitz Olalde (bateria) eta Mikel Zarketak (gitarra) grabazioan lagundu duten.

Diskoaren izenburuak dioen moduan, naturan barrena bidaiatzeko gonbitea egiten digu Zingirak lehen disko honetan, rock sinfoniko eta progresiboa, nahiz pop, folk eta erritmo latinoak ere uztartuz.

Edizio mugatua atera du Zingirak; 350 ale serigrafiatuak. Aker taberna eskura daiteke diskoa 12€-tan. Martxoaren 12an aurkeztuko du diskoa Gaztelekuan, Lenao taldearekin kartela osatuz.

KAMEL ZOUAQUI

ipuin kontalari algeriarra
udal liburutegian - apirilak 6

'Ahozotasunaren Nazioarteko Jaialdia'
sarean sartu da Oñatiko Udal Liburutegia



Oraindik hilabete gelditzen bada ere, merezi du apirilaren 6ko hitzordua agendan jasotzea. Udal liburutegia 'Ahozotasunaren Nazioarteko Jaialdia' sarean sartu da, eta horri esker Kamel Zouaqui algeriarren ipuin kontaketa saioaz gozatzeko aukera izango dugu. Antzezle eta kontalari frantses-algeriarra da, eta 'Los paseos de un loco' izeneko ipuin sorta kontatuko du Oñatin. Islamaren barruan pentsalari ospetsua izan zen Nasredine Hodjaren munduan barrena bidaia zoragarria egiteko aukera eskainiko digu, bizitzari eta jakinduriari buruzko gogoeta ederra eginda.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala
- Lurien kristalizatua, dekapatua
eta argizari ematea.

Diakua 17 behe, esk. / Tel: 733 733 713
argitagarbi@hotmail.com



Almaraz

Immobilari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

'Gure bezeren eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baseri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu.'

AGENDA

03

MARTXOA



HITZALDIK

> MARTXOAK 9 / 19:00



NAFARROAKO
ALDAKETAREN
GAKOAK
Iratzar-ek
antolatuta.
Hizlaria: Floren

Aoiz. Antixena gaztetxean

TAILERRAK

> MARTXOAK 5 / 10:00 FELTROZKO LEPOKOAK

> MARTXOAK 19 / 10:00 ARTILEA PRESTATU ETA LANDU

Artilea prestatu (garbitu eta kardatu) eta ardatzez edo goruz iruten ikasteko tailerra Conchi Morenoren eskutik, Ugarkalde 34an.

UDALEKUAK

Urtero bezala, udaleku krea-tibo edo sortzaileak antola-tuko ditu Conchi Morenok ekainaren 28tik abuztuaren 5era (9:30-13:00). Informazio gehiago: 645499235 edo Facebook: *lantalan*

HAURRENTZAKO ANTZERKIA: 'GAUEKO ENTZIKLOPEDIA KOXKORRA'

> MARTXOAK 6 SANTA ANA, 17:00

3 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako ikuskizuna, familia giroan gozatzeko moduko ikuskizun musikala. Clown-ak, antzerkia eta poesia bisuala uztartzen dituen ikuskizuna.

BATZARRAK

> MARTXOAK 9 / 19:30

HERMANSOLOÑA-REN
BATZAR OROKORRA
2015eko balantzea eta 2016-rako egitasmoak aurkeztuko dituzte. Kultur Etxean.

> MARTXOAK 18 / 17:00

PAKE LEKUKO
BATZAR NAGUSIA
Santa Ana aretoan.

KONTZERTUAK

> **MARTXOAK 5 / 22:00**
'W.C.' eta 'BURU HILKETA'
Antixena Gaztetxean

> **MARTXOAK 11 / 21:00**
BERTSO HARD CORE
Antixena Gaztetxean

> **MARTXOAK 12 / 22:00**
'LENAO' eta 'ZINGIRA'



Disko berria aurkeztuko dute talde oñatiarrek Gaztelekuan. Sarrera: 5€.

> **MARTXOAK 12, 15, 16**
UDABERRIKO KONTZERTUAK
Jose de Azpiazu musika es-kolako ikasleen kontzertuak Santa Anan 18:30etan.

> **MARTXOAK 13 / 19:30**
'MOONSHINE WAGON'
Country taldea Pakon

> **MARTXOAK 18 / 22:00**
'TOOTH' eta 'SACCO'
Antixena Gaztetxean

> **MARTXOAK 19 / 22:00**
IKASBIDAIRAKO KONTZERTUA
Antixena Gaztetxean

> **APIRILAK 1 / 22:00**
'NIRE' eta 'JUAN VALLS'
Antixena Gaztetxean

> **APIRILAK 2 / 22:30**
'MCD' eta 'LOKURIA'
Gaztelekuan

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



IKASTAROAK

> **APIRILAK 12-MAIATZAK 31**
ARGAZKILARITZAKO
HASTAPEN IKASTAROA



Ilunpetan Argazki Taldeak antolatuta. Kamerak modu manulean erabiltzen ikasi eta irudien konposizioarako oinarrizko ezagupenak landuko dira. Apirilaren 12tik maiatzaren 31ra. Astearteetan 18.00-19.30. Maiatzaren 7an, goizez, 3 orduko saio praktikoa bat egingo dugu. Prezioa 70€. Izen-ematea: ilunpetan@gmail.com edo 605753966.

> **APIRILAK 5**
BITXIGINTZA (BISUTERIA)
IKATAROA
Pake Leku elkartearen. Apirilaren 5ean hasita, 20 ordukoa. Astearteetan, 17:30-19:30. Prezioa: 12€ (bazkide ez direnek 14€)

HELDUENTZAKO ANTZERKIA: 'AMODIOAREN ZIEGA'

> **MARTXOAK 13**
SANTA ANA, 19:30

Arte Drama Euskal Antzerki Laborategiaren baitan orain dela bi urte sortutako Lauka Teatroa laukotearen estreineko lana ikusi ahal izango dugu Santa Anan. Xabier Menigurenen testuan oinarritutako lana da. Kartzela bateko 'bis a bis' batean elkartzen den bikotea da protagonista. Egoeran harrapatuta, ihes egin ezinik, aske izateko eta bizirik sentitzeko eskubideagatik borrokatzen dute. Bien arteko hari hauskorrenak zein indartsuenak begi bistan utziz eta etorkizun zehatzik gabeko amodio istorio hunkigarria azaleratuz.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Liburua

"Burdin elorri arantzetan"



Liburua

"El derecho a decidir"



Liburua

"Merkataritza eta marketina"



CD Musika

"Lan lang in Paris: Chopin..."



DVD Dokumentala

"A un paso"



Liburua

"Piriniotarrak: Piriniotako kultura"

MERKATU TXIKIA

- > **Duplexa** salgai erdialdean. 150m² baliagarri dituen etxea; 17,50m²ko garaje itxia eta 100m²ko lorategia. Prezioa: 325.000€. Deitu: 609074127 / 649887917
- > **Garaje itxia** (25m²) errentan Goiena kalean. Deitu: 678711405.
- > **Alokatzeko** pisu bila nabil. Emakumea hiru umerekin. Lan kontratua daukat. Deitu: 635706983

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Martxoak 9, 10, 18, 19, 20 eta 29, eta apirilak 6 eta 7.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Martxoak 3, 11, 12, 13, 21, 22, 24, 25, 26, 27, 28, 30 eta 31.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Martxoak 4, 5, 6, 14, 15 eta 23, eta apirilak 1, 2 eta 3.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Martxoak 7, 8, 16 eta 17, eta apirilak 4 eta 5.



ZURICH
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

not+vello
fotodepilación con láser de diodo
FOTODEPILAZIOA
IPL GAZTETZEA
AZAL EKO GARBURKETAK
OPARI TXARTELAK
Tarifa tinkoa 30€ (zona 7 sesio)
Olakua 1B, Behea
943 71 67 13
onati@nomasvello.com
www.nomasvello.es

JAKINGARRIAK

> Madinabeitia anaia medikuak

Santa Marinako 6 zenbakian jaioak, Sizen eta ospe handiko medikuak izan ziren Juan eta Jose Madinabeitia Ortiz de Zarate anaiak, medikuntzan ez ezik, politikagintzan ere nabarmendu zirenak ezkerreko ideiak defendatuz.

Juan 1861an jaio zen eta Jose 1870ean. Beste bi anai eta lau arreba izan zituzten. Familia aberatsekoak ziren. Aita, Emeterio Madinabeitia Ugarte, Rondako Zaldun Elkarteko kidea zen, eta Oñatiko alkatea ere izan zen bigarren Karlistaldi inguruan. Posizio oneko gizona izan zen, baina egoera ekonomiko delikatuaren utzi zuen familia hil ondoren. Ama, Carmen Ortiz de Zarate Urcelay, gazterik hil zen, 1876an, 44 urte zituela.

Juanek Valladolid eta Madrid artean egin zituen ikasketak. Gastroenterologia arloan nabarmendu zen. Madrilgo ospitale probintzialeko burua eta Medikuntza fakultateko irakaslea izan zen. Aitzindarietako bat izan zen auskultazio eta perkusio teknikak praktikatzen, eta fakultateko irakaslerik argitsuenetakoa izan zen. Berarekin ikasi zuten gerora mediku ospetsuak izan ziren Nicolás de Achúcarro, Juan Negrín, Enrique Areilza, Gregorio Marañón....

Diruduna bazen ere, politikoki anarkista teorikoa zen. Espainiako gerra zibilak Donostian harrapatu zuen eta Parisera alde egin zuen itsasoz, baina Bartzelonara itzuli zen Errepublikari laguntza ematera. Bertan hil zen 1938an.



Jose Madinabeitia (1870-1923), Alberto Arrueren oleoan, eta Juan (1861-1938) anaiak ezkerrean. Behean, Madinabeitiarren jaiotetxea, Santa Marina plazan, eta Juan Madinabeitia medikuaren omenez egindako zigilua.

**MEDKU GISA
EZ EZIK,
POLITIKOKI ERE
NABARMENDU
ZIREN
MADINABETIA
ANAIAK**



Bere anaia Josek Itziarren eman zituen lehen urteak mediku lanetan, eta bertan ezagutu zuen Pio Baroja, hau ere medikuntzan hasiberria zela, 'Vidas sombrías' liburuko ipuinetako batean jasotzen duen moduan.

XIX. mende amaierarako Bilbon jarria zuen kontsulta Josek, zirujau eta sabeleko mediku espezialista gisa. 1899an tuberkulosiak jotako gaixoen-tzako erietxe bat zabaldu zuen Gorbeia inguruan. Garai hartan urtero 700 inguru heriotza eragiten zituen Bizkaian tuberkulosiak, eta arazo larria zen.

Oso langilea, adeitsua eta eskuzabala omen zen, baina Bilboko burgesia

kontserbadoreak bizkarra eman zion, gorria zelako. Bilboko sozialismoaren ikurretako bat izan zen, Facundo Perezagua eta Tomas Meabe-rekin batera. 1911ko greban atxilotua izan zen. Bizkaiko meatzariei eta, oro har, langile eta pobreei laguntzeko mediku zerbitzu ibiltari eta doakoa jarri zuen Eibarren, Sestaon, Mirandan...

1920an Madrilera joan zen Juan anaiairengana. Gero etxe xume bat erosi zuen Larrondon, eta 1923an hil zen gaixotasun luze baten ondoren. Bere hilkutxa Oñatira zekarren trena gelditu egin zen Eibarren, eta bertako langile taldeek omenaldia eskaini zioten.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAKOKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiako Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Arrikruzeko
HILARRIA

>Goiko argazkiko harri bitxi honek egiten die ongi-etorria bisitariari Arrikruzeko harrera edo interpretazio gunean. 2008an, ustekabean, Arrikruzeko lizunean aurkitu zutenaren erreplika da.

Ez dago garbi zein den bere jatorria. Garai batean ohikoa izaten zen kurtzeak jartzea eguraldi txarrak eta gaitzak uxatzeko; baita Mari jainkosaren boterea gutxitzen saiatzeko ere. Horren lekuko Aloña aldeko Gaiztazulon agertutako burdinezko bi gurutzeak, izan ere, Anbotoko Señoriaren Oñatiko gordeleku garrantzitsuen Gaiztazuloko leizea da.

Bestalde, Arrikruzeko baserrietako bat, Arabara zihoan Kalahorrako galtzada ondoan zegoen benta bat izan zen eta, baliteke, bat-batean hildako bidaiariren baten oroimenez bide ertzean jarraitako gurutzea izatea ere.

Gaur egun gehien bat Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko hilerrietan geratzen baldin badira ere, garai batean Gipuzkoa eta Bizkaian ere zabaldua zeuden, eta hilerrietan ez ezik, bide ertzeetan ere ohi-koak izaten ziren.

Arantzazu

> Jerardo Elortza

Oñatiko baserri-giroko auzoen artean gazteena da Arantzazu, ofizialtasunari dagokienean behinik behin. Badakigu XV. mendearen azken herenetik aurrera, izan direla goiko paraje haietan ermitatxo bat hasieran, eta ondoren elizak, komentuak, kolegio-seminarioak edota bentak nahiz ostatuak, aldaketa askorekin gaur egunera arte iritsi zaizkigunak, hainbat erreketak, arazo, buruhauste eta gorabehera gaindituz.

Auzoa, ordea, berandu eratu zen ofizialki: XX. gizaldiko lehen hamarkadan. Aurretik Uribarri Goikoa edo Uribarri Suso legez ezagutzen zen. Egia esan, oso baserri gutxi jaso ziren XIX. mendera arte, herriko kontzejuak ez baitzuen hartarako baimenik ematen. Izan ere, inguru hura herriko esparru babestua genuen: ardi, zaldi eta gauduentzako larre ugari zegoen korta borobil askotan, eta ikazkintzarako zein eraikuntzarako baso zabalak: pagadiak eta hariztiak batez ere.

Bentak eraikitzea zilegi zen, bidazti eta mandazainen mesedetan. Bi oso antzinakoak ditugu auzo honetan, Arantzazu bera baino zaharragoak: San Juan Artiakoa, auskalo noizkoa, eta Arrikruzekoa, XV. mendeko lehen erdialdekoa, biak Oñatitik Arabara Katilluiturritik gora doan bidean, sasoi bateko Kala-

AUZORIK AUZO

horra galtzada ospetsuan. Gesaltzako benta, Arrikruzetik Arantzazurako lehenengo galtzada zabaldua eta gero egin zen; eta eliza-komentu ingurukoak ere XVI.etik aurrera, garai eta epe desberdinetan.

**Arantzazuk,
eliz inguruaz
aparte ere,
era askotako
edertasunak
eta altxorrak
eskaintzen
dizkigu**

Benta izan gabeko lehen baserri arantzazuarra XVIII.ean jasoarazi zuten Albitxuriko kortan Oñatiko jauntxo Lazarragarrek, hori bai, herriko kontzejuarekin luzaroan auzitan jardunda. Albitxuriren ondoren laster etorri ziren Arrola biak, eta XIX.ean Azpilleta biak, Arendui, beste bi Albitxuri, Kortakogain, Beilloga biak, Soroandieta, Unaiñena (Zapiarbe orain), Aizkirri biak, Peña-culo (gerora Zelaizabal beheratxoago) eta Gomistegi. Gehienak kortak izandako lursailetan daude. Mendietxebarri (Kuturrolatza edo Miñerua ere deitzen dena) XX. gizaldiaren hasieran altxatu zuten.

Hain ezagunak diren Arantzazuko eliza-komentu, kulturgune, parke-txe, ostatu eta jatetxeek aparte, auzo honek era askotako edertasunak eta altxorrak eskaintzen dizkigu: Duru eta Eskista aldeko artzain-lekuak euren txabolekin, Aloña aldeko gailurrak, paisaia zoragarriak, ikuspegi liluragarriak, Iturrigorri-Gazteluaitz inguruko baso trinkoak, Artasoko txoko magikoak, monumentu megalitikoak, eta beste mila bazter erakar-garri.

Eta ezin aipatzeke utzi beste aberastasun preziatu batzuk: Arantzazuko auzotarrek, gizon nahiz emakumeek, euren informazioekin oñatiarroi eta euskaldun guztioi lagatako euskal berba, kanta, bertso, ipuin eta beste mila jakingarri, Kandido Izagirre, Luis Villasante, Julian Alustiza, Bitoriano Gandiaga eta abarren lanetan betiko bilduta geratu zaizkigunak.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BILKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATZURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño buzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Bilakaldeko egia, egurrezko lapezon



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

SORGIÑA TXIMIÑIXAN BEHERA

Garai batian normala edo ohikua izaten zan andraak gabian goruetan¹ jardutia, harigiñan. Hala, baserri baten andriak goruetan ziharduena, etorten xakon katua tximiñixan behera eta esaten otsan: **txitxi eta papa, eta papa goxua**, eta handik bialketako andriak emun bihar izaten otsan urdaixa eta txorixua ogixagaz.

Egun baten, katuorri fronte egitteko andriaren orde zizona geratu zan goruetan, eta suburdiña itzi eben sutan goriketan. Gaberdixan, pentsautako moduan, etorri zan katu gogaikarri hori eta harek esan: **Bizarrak eta goruetan?**

Eta honek eraso: **Katua eta barriketan?**

Orduan burrukan hasi ziran bixak eta gizonak sutan gorittutako suburdiñagaz **egundoko zapinddua**² emun otsan katuorri.

Hurrengo egunian aldeko baserriko amandria gorputz dana maillaatuta eta mankauta agertu zan.



¹Hilando con rueca

²Sekulako egurtua

Goguan hartzekuak

SIGLAK (2)

Fan zan hillian ekinddako zirrindariari jarraituko xaugu orainguan, sarri ebaltzen diran beste hamar sigla euskeraz zela diran ikusteko, baiña aurretik orduan eginddako hankasartze bat zuzendu gura dogu:

UPV/EHU (Universidad del País Vasco)	UPV/EHU	Euskal Herriko Unibersidadia
--------------------------------------	---------	------------------------------

Erderaz	Euskeraz	Esanguria
PIB (Producto Interior Bruto)	BPG	Barruko Produktu Gordiña
IVAP (Instituto Vasco de la Administración Pública)	HAEE	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundia
BOPV (Boletín Oficial del País Vasco)	EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarixa
IBI (Impuesto de Bienes Inmuebles)	OHZ	Ondasun Higieziñen gaiñeko Zergia
ONU (Organización de Naciones Unidas)	NBE	Nazio Batuen Erakundia
RGI (Renta de Garantía de Ingresos)	DBE	Diru-sarrerria Bermaketako Errentia
EHNE (Sindicato de Agricultores de Euskal Herria)	EHNE	Euskal Herriko Nekazarixen Elkartia
TGV (Tren de Alta Velocidad)	AHT	Abixara Haundiko Trena
BCE (Banco Central Europeo)	EBZ	Europako Banku Zentrala
FMI (Fondo Monetario Internacional)	NDF	Nazioarteko Diru Funtsa

EUSKERAZ EGOGI

Establezimenduen izenetan -a artikulua ez ifinttia

Oraindio be sarri samar ikusten dogu akats hau establezimenduen izenetan. Etsenplurako ikusi Donostiako autobus geltoki barrixaren gaiñian 2016-02-6ko Berria egunkarixak dixuena:

De Norte a Sur du izena geltoki berriko kafetegi berriak; horrela, gaztelera batuan. Halere, ia asmatu egin dute gero errotulu nagusian: "Kafetegi, jantoki". Artikulua lehen plateran jateko atera dute, antza. (sic).

Herrixan be badakogu honen adibidiak: **Portu kafe*, **Bizipoz kafe ...*

Jakin bihar dogu, euskeraz, erderaz ez moduan, establezimendu bat izentaitteruzkuan danen aurretik izen propiua jarri bihar dala eta ondoren dendaren izen komuna, beronen azkenian **-a** edo **-ak** (artikulua) jarritta, esaterako:

Udal euskaltegixa, Altuna estankua, Echeverria jatetxia, Juanitosa bazarra, Herri eskolia edota Osi kirolak...

Beraz, goiko izen horrein orde honeitxek biharko lirake: *Portu kafea, Bizipoz kafea ...*

Garai batian bazan plazako arkupietan, orain *Oñati* eta *Arkupe* tabernak dagozen lekuan, beste kafe famosu bat hirurogeita hamargarren hamarkadan zarrau zana: **Garaikoetxea kafia**. Oraingo jentia agua gozau gura dogunian *Bizipoz* edo *Portu* kafietara faten garien moduan, aurreko gizaldikua kafe haretara faten zan kafia hartuaz domeka arratsaldia pasaittera.

Santa Ageda kanta-eskian ospitalaren alde



Aurreko hillian egogixago etorriko zan fotografixa hau, baiña merezi dauelakuan, orainguan kaleraketia pentsau dogu, atzerapentxo apur batekin bada be. **Santa Ageda bezperan kantuan** urteteko tradiziñuak gorabehera batzuk izan zittuan gerra ostian. Momentu batian **debekau be egin euen** herriko agintarixak, kuadrilla batzuk larregixan ibiltten ziralako-edo. Baiña, gerotxuago, hartarako baimena emun ostien hurrengo urtian soldauzkara fan bihar euen mutil gaztiari, euren penak arinketako, nunbait. **Kinttuen kontua**, ba, ezta hain antxiñakua.

Dana dala, kinttuak etziran batzuk be jardun euen noizian behin halako zeregiñetan. Behin **kuadrilla heldu samarra** ibili zan kantuan asmo desbardin batekin: **herriko ospitalerako dirua batzeko**. Gaiñera, Santa Agedakuaz aparte, baeukain horretarako **bertso berezi batzuk be**, **Biktoriano Ugartek** moldautakuak; bestiak beste, ospitalaren alde egittia inportantia dala esaten daue bertsuok, egunen batian hara fateko premiñan egon geinkielako.

Argazki honetan ikusten dittugunak **kaletarrak dira danak**: dotore asko jantzittako kantarixak, **bi txistularirekin**, Oñatin izan diran onenetakuak, **Iriarte aitta-semiak**, eta **zaldi eder batekin**, Egañaneko panaderixakua seguruenik, txorixuak eta bestelakuak karriaitteko. Fotografixa San Pedroko torriaren aurrian atarata dago eta 1950 hamarkadiaren erdi ingurukua-edo izan leike. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Goiko illaran zutik: Alberto Altuna, Atzeko kalekua; Jabier Egaña, Kale Barriko panaderixakua; Rikardo Elortza, Santa Marinakua; Demetrio Iriarte txistularixa, Atzeko kalekua; bere aurrian makurtuta Demetrioren semia, Hijinio Iriarte, hau be txistularixa; Justo Lizarralde, Kale Zaharreko *Uztargiñena*; eta Ramon Onraitia, Lezesarriko *Gomendio-enea* etxian bizi zana.

Behoko illaran belauniko: Jenaro Arregi *Makalena*, orduan Atzeko kalia, orain Ramon Irizar kalia; Jose Mari Letamendi, plazako dendakua; Joxe Mari Madinazkoitia, Kale Zaharrekoa; eta Juanito Arregi, Kale Zaharreko *Arrillagena*.

Lehiaketia

J. E.

Oso pozik gagoz, fan dan hilleko lehiaketatxuak guk uste baiño jarriapen hobia euki dauelako. Erantzulien artian gehixen hurre-ratu dana **Iñaki Ormazabal** izan da: 1908. urtia jarri dau argazkixaren data lez. Ez pentsau, etzan hain samurra eta guk geuk be zalantzak gittuan. Azkenian, baiña, zera erabagi dogu: fotografixa hori 1903 eta 1906 artian ataratakua izan leikiela. Arrazoiak? Ba, *Goizeko Izarra*, *Pilar Enea*, *Aloña alde* eta *Ibaiondo* palaziotxuak XIX. gizaldiko azkenengo urtietan eta XX. eko lehenenguetan jaso ziralako; eta, batez be, *Olalde* baserrixa 1806-1807 inguruan erre ondoren, barriztau egin bihar izan euelako.

Milla esker xehetasun batzuk arkiketan lagundu doskuen **Xabier Zelaia** eta **Jaione Ugarteri**, eta bereziki lehiaketan parte har-tu dozen guztioi. Iñakiri zorionak eta gogoratu sarixa zain dakola Olako Torrian.



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS



BADAKIZU ZERK DESBERDINTZEN GAITUEN?



Merkatuko aseguru konpainia onenekin egiten dugu lan, aseguru mota guztiak landuz: bizitza, heriotza, osasuna, automobilak, etxeak... baita enpresa arloa ere.

ZEINTZUK DIRA GUREKIN LAN EGITEAREN ABANTAILAK?



INDEPENDENTEAK GARA

Edozein aseguru etxerekin lan egin dezakegu. Ez dugu konpainiarik ordezkutzen.



EROSOTASUNA

Cu gara zure kontaktua edozein beharren aurrean, zure aseguru etxea edozein delarik.



AURREZPEN EKONOMIKOA

Aseguru guztiak aztertzen ditugu eta kobertura/prezio onenak eskaintzen dizkizugu.



GERTUTASUNA

Zu zara gure bezeroa eta zure interesak dira gure lehentasuna



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.gipuzkoa.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus